



UDAL AGINTARAUAK 2026

AURKIBIDEA

1.Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak arautzen dituen zerga-agintaraudia	3
2.Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren ordainkizunak zehazteko funtsezko osagaiak arautzen dituen zerga-agintaraudi	9
3.Udalerrian egiten diren ekonomia jardueren gaineko zergaren ordainarazpenerako hainbat ahalmen arautzen dituen agintaraudia	17
4.Hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskala	20
5.Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala	31
6.Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen zerga-agintaraudia	37
1- Udal igerileku eta kiroldegiaeren zerbitzua	39
2- Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta deusezte	45
3- Udal hilerriko zerbitzua, gorpuak eramatea eta bestelakoak	50
4- Alderdi batek eskatuta, udal administrazioak edo agintariak luzatu edo bere gain hartzen dituzten agiriak	50
5- Lurzoruari eta hiri antokaletari gaineko legeek eskatutako hirigintza lizentziak ematea	51
6- Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea eta jardura eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea	52
7- Autotaxien eta alokairuko gainerako ibilgailuen lizentziak edo baimenak ematea	53
8- Gizarte zerbitzuetako tasak	53
9- Hiri trafikoa arautu eta kontrolatzeko jardura bereziak egitea, ibilgailuen zirkulazioa errazteko eta udaltzainek trafikoa seinalizatu eta antolatzeke egin ohi dituztenak izan gabe	56
10- Udal Euskaltegi eta Euskara Patronatuaren Tasak	57
11- Txakurrak jaso eta aterpean edukitzea	59
12- Ezkontza espedienteen tramitazioa	59
13- Azpeitiko Udaleko Langile izateko hautapen probetan partu hartu nahi dutenei eman beharreko zerbitzuarengatik tasa	59
14- Udaltzaingoaren atestatu eta txostenak egiteagatik tasa	59
15- Arriskutsuak izan daitezkeen animalien lizentziak eta txartelak ematea	59
7.Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen agintaraudia	61
1- Udalaren herri erabilerako terrenoak hartzea merkantzia, eraikuntza material, obra hondakin, hesi, puntel, asto, aldario eta antzeko beste instalazio batzuk jartzeko	63



Azpeitiko Udala

2- Ibilgailuak espaloietatik sartzera eta aparkaleku eskusiborako eta edozein motatako merkantzien karga eta deskargarako ibilgailuak geratzeko herribidea gordetze	64
3- Aurrealde, erakusleho eta beira-arakak	66
4- Edozein motatako udal herribideen hegalkina elementu hauekin hartzea: eraikuntzako elementu itxiak, terrazak, begiratokiak, balkoiak, markesinak, toloak, haize-gordelekuak eta antzeko instalazio batzuk, kalearen gainetik edo fatxadaren lerrotik ateratzen direnak	66
5- Postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun guneak, feriak edo jolas lekuak jartzea udalaren herri erabilerako terrenoetan, kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinemako filmaketa barne	66
6- Zangak, mea zuloak eta sundak irekitzea, udalaren herri erabilerako terrenoetan errepideak, bideak eta gainerako herribideak barne, hodiak, eroanbideak eta bestelako instalazioak jarri eta konpontzeko. Halaber, kalean zoladura edo espaloia iraultzea	68
7- Linea elektrikoak, hodiak eta galeriak argindar, ur, gas edo bestelako isurkinak garraiatzeko, bai eta lineen zutoinak, kableak, horma-beso, lotze, banaketa eta erregistro kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikoko aparailuak edota kaleetan edo udalaren herri jabariko bestelako terrenoetan edo haien gainean ezartzen diren antzeko elementuak ere	68
8- Udalaren herri erabilerarako terrenoak hartzea mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementu batzuk erabiliz, irabazi asmoa dagoenean	68
9- Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzoruen, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia	70
10- Trakzio mekanikodun ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea horretarako erabakitako guneen barruan eta muga jakin batzuekin	72
11- Udalaren herri-jabetzapeko edo herri erabilerarako zortasunako landabideen gozamen eta erabilera arrunt edo berezia	73
12- "Baratza Programa" barneko baratzen erabilpen lagapena	73
8. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen ordenantza arautzailea	75
1- Pertsonal, material eta beste edozein motatako zerbitzuak ematea	76
2- Logopedia zerbitzua	77
3- Soreasuko lurpeko aparkalekuak eta trastelekuak	77
4- 1766ko Matxinada kaleko lurpeko aparkalekuak	78
5- Tutelatu eta larrialdiko etxebizitzak	79
6- Adinekoentzako ostatu zerbitzua	85
7- Formakuntza ikastaroak eta jardunaldiak	88
8- Gazteria saileko ekintzak	86
9- Egokitutako lokalen alokairua	87
9. Kontribuzio berezien ordenantza fiskal orokorra	88



1. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainkizunak zehazteko funtsezko osagaiak arautzen dituen zerga-agintaraudia

I. Xedapen Orokorrak

1. Artikulua

Udal honek, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14.3 artikulua ematen dion zilegitasuna erabiliz, ondorengo artikuluan ezarritako terminoetan finkatzen du Zerga honen karga tasa.

II. Karga Tasak

2. Artikulua

1.- Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoan kokatuta dauden Hiri Ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga tasa ERANSKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratuko da finkatua.

2.- Izaera orokorreko Hiri Ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga tasa ERANSKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratuko da finkatua.

3.- Landa Ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren karga tasak, ERANSKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean daude finkatuta.

III. Zerga oinarria eta Kuotak

3. Artikulua

1.- Hiri Ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Oinarria, ondasun horien balio katastrala izango da.

2.- Landa Ondasunei aplikagarri den Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Oinarria, erregelamenduz onartutako balio katastrala izango da.

3.- Zerga honetako kuotaren zehaztapena, aurreko ataletan adierazitako Oinarri bakoitzari dagozkion karga tasak aplikatuz lortuko da eta Ordenantza honetako 2. Artikuluan finkatzen da.

IV. Kudeaketa arauak

4. Artikulua

1.- Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak Gipuzkoako Foru Aldundiari ordezkotzan eman ahal izango zaizkio Udalbatzak erabakiko duen termino, eduki eta gorabeheretan eta horretarako dagokion hitzarmena izenpetuta.

2.- Hartutako udal erabakia, onartu ondoren, GAO-n emango da argitara.



V. Hobariak

5. Artikulua

1.Famili Ugariak:

Familia ugariaren titularitatea duten subjektu pasiboentzat zergaren kuota osoan ondorengo hobari-eskala ezarri da, diru-sarreraren eta seme-alaba kopuruaren arabera.

Familiko PFEZko aitortpenen diru-sarrera gordinen batura hartuko da familiko diru-sarreraren kopuru gisa.

Seme-alaben kopurua	0,00 € - 28.500,00 €	28.500,01 € - 59.500,00 €	59.500,01 € - 90.000,00 €	> 90.000,00 €
3	% 90	% 50	% 15	0
4	% 90	% 70	% 40	0
5 edo gehiago	%90	% 90	% 60	0

Familia ugarian seme-alabetako batek elbarritasun bat edo lan egiteko ezintasunen bat aitorturik izanez gero, familia unitateko seme-alaba kopurua egokitu egingo da eta kide hori bi kide bezela kontatuko da.

Urtarrilaren 1etik martxoaren 31 arteko epean urtero aurkeztu beharko da eskaera, etxeko adin nagusiko guztiek sinatuta. Hobari eskaerak ,egiten den urteko ordainagirian izango du eragina.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Azpeitiko Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeako ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

— Polizia Zuzendaritza Nagusia: Nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea.

— Foru Ogasunak: PFEZ kontsulta.

— Katastroko Zuzendaritza Nagusia: katastroko datuen kontsulta.

— Eusko Jaurlaritza: Familia ugarien tituluen kontsulta

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.



Azpeitiko Udala

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoa lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

Hobaria familia unitatea bizi ohi den ondasun higiezinari soilik aplikatuko zaio. Hobaria aplikatu beharreko etxebizitzaren balio katastrala gehienez 190.000,00 €koa izango da. Balio katastrala hau baino handiagoa bada, hobaria 190.000,00 €ri aplikatuko zaio.

Ondasun higiezin bati ohiko bizilekuaren izaera emateko ezinbesteko baldintza izango da etxebizitza horretan zerga hobaria izateko eskubidea duten familia unitateko kide guztiak erroldaturik egotea. Banantze edo dibortzio kasuetan baldintza hau ez bada betetzen, kasu bakoitza banan-ban aztertuko da.

2. Eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza eraikinetan.

Zergaren kuota osoari dagokion %50eko hobaria, eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza erabilerako eraikinetan. Dena dela, obra horiek borondatez egin beharko dira. Alegia, obra horiek ez dira indarrean dagoen araudiak inposatutakoak izango. Hobari hauek ezarri ahal izateko, instalazioetan, beroa sortu ahal izateko kolektoreak jarri beharko dira. Kolektore horiek Administrazio eskudunak homologatu beharko ditu.

Subjektu pasiboek dagozkien eskabideak egin ostean emango da hobaria eta sistema instalatzen denetik hasita 5 urtetan aplikatuko da. Hobaria jasotzeko etxebizitza eraikina 2005 urtekoa baino lehenagokoa izan beharko da.

3. Efizientzia energetikoaren A edo B mailako etiketa lortu duten etxebizitza eraikinak.

- Zerga kuotaren %50eko hobaria eraginkortasun energetikoaren "A" etiketa duten eraikinetan.
- Zerga kuotaren %40ko hobaria eraginkortasun energetikoaren "B" etiketa duten eraikinetan.

Hobaria jasotzeko etxebizitza eraikina 2005 urtekoa baino lehenagokoa izan beharko da eta:

1. Obra horiek borondatez egindakoak izango dira eta ez indarreko araudiak ezarriak dituenean edo Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren (EIT) kontrako txosten batek derrigortuta.
2. Obrak edo birgaitzeak egin aurretik Udalak emandako lizentzia edo obra-baimena izatea, indarrean dagoen hirigintza-araudiaren arabera.

Hobari honek, eraginkortasun energetikoaren etiketa lortzen denetik zenbatzen hasita, 3 urteko iraupena izango du. Hobaria, interesdunak eskatuta emango da eta hiru zergaldi horiek amaitu aurreko edozein unetan eskatu ahal izango da eta hala badagokio, eskaeraren hurrengo zergalditik izango ditu ondorioak.

Interesduna horren aurka agertu ezean, hobariaren baldintzak betetzen dituen zehazteko, Azpeitiko Udalak zuzenean kontsultatuko du Euskadiko Administrazioen Elkarreraginkortasun eta Segurtasun Nodoa-NISA Eren bidez:

-Eusko Jaurlaritza: Eraginkortasun energetikoaren etiketaren kontsulta.



Agiri hauek Azpeitiko Udalak ezin baditu modu telematikoa eskuratu, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu egindako obren faktura edo egiaztagiriekin batera.

Artikulu honetan arautzen diren hobariak ez dira beraien artean bateragarriak. Subjektu pasibo batek hobari bat baino gehiago izateko eskubidea badu, berak kontrakorik esan ezean, ehunekorik haundiena duena aplikatuko zaio.

VI. Errekarguak

6. Artikulua

6.1. Ohiko bizilekua ez direlako errekgua duten bizileku erabilerako ondasun higiezinak

1. Subjektu pasiboaren edo – alokatzearen edo erabilerak lagatzearen bidez – hirugarrenen ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak, zerga ordenantza honetako eranskinean jasotako errekguari lotuta egongo dira.
2. Bizileku erabilerako ondasun higiezinak joko dira, katastroan etxebizitza erabilerakotzat edo etxebizitza xedekotzat ageri diren lokalak. Etxebizitzari atxikitakoak sartuko dira, baldin erregistroko finka bakarra badira.
3. Errekarguaren subjektu pasibo izango dira zerga honen subjektu pasiboak.
4. Errekargua, errekgua aplikatzen zaion zerga sortzen den unean bertan sortuko da, eta kuotarekin batera galdatuko da.

6.2 Ohiko bizilekutzat jotzea

1. Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat egiazko ohiko bizilekutzat joko da, baldin zerga sortzen den egunean udal honen biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.
2. Ez zaie errekgu hau aplikatuko Udalaren, haren erakunde autonomoen, enpresa erakunde publikoen eta kapital osoa Udalarena duten merkataritza sozietateen jabetzako etxebizitzetara.

6.3 Ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, xedea dela kausa errekgua aplikatzeari lotuta ez daudena.

Egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekgu hau aplikatuzetik, 6.1. artikuluan ezarritako baldintzetan, baldin inguruabar hauetakoren bat betetzen badute:

- a. Errentan emateko erakunde publiko baten esku jarritakoak
- b. Modu jarraituan ematen diren jarduerak ekonomiko, profesional edo merkataritzako baten zerga-helbidea diren etxebizitzak. Hemen barruan daude baserriak, beti ere baserrien titularrak bertan dagoen jarduerarengatik nekazal errenta jasotzen badute.
- c. Batuta dauden etxebizitzak, nahiz eta jabetza erregistroan bi finka izan eta bi ordainagiri eduki.
- d. Errentan emandakoak. Errenta kontratuak aurkeztu beharko dira. Kontratu hauen berri Foru Ogasunari emango zaio, jakinean egon dadin. Aurreko urtean gutxienez sei hilabetetan



alokatutakoek ere salbuetsiko dira. Ez dira onartuko dohaineko zesioak eta prezio sinbolikoa duten kontratuak.

e. Etxejabea zendu ondoren jasotakoak. Beharrezkoa da zendutako etxe jabea etxebizitza horretan erroldatua izatea. Salbuespena heriotza izan eta gehienez bi urtez mantenduko da.

f. Aurreko urtean eskuratu eta urtarilaren 1ean inor erroldatuta egon ez arren, eskuratze datatik hiru hilabeteko epean erroldatutako etxebizitzak.

g. Errekargu honen helburuen espiritu eta irizpideekin bat datorren kasuetan, Alkateak erabakiko du errekarguaren salbuespena onartzea ala ez.

h. Ekainaren 8ko, 149/2021 Dekretuan, jenderik gabeko etxebizitzetara ezartzen zaien Kanona ordaintzen duten etxebizitzak.

6.4. Errekargua aplikatzeko kudeaketa prozedura berezia

Udalak ofizioz, ohiko egoiliarrik inskribatuta ageri ez zaien bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titular izanik zerga honen subjektu pasibo direnen hasierako zerrenda egingo du.

Ondasun bat errekarguaren gai dela jotzen den aurreneko aldian, subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, egoki deritzen alegazioak egin ditzan. Udalak, alegazioak ikusita, errekargua aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena emango du. Erabaki hori subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, legezko bide egokiak erabiliz. Alegazio hauek onartuak ez badira, ez zaio berriro jakinaraziko gainkargua izateko zerrendan dagoela eta bere ardura izango da garaiz jakinaraztea gainkarga egoki ez izatea eragiten duen edozein egoera (salbuespen egoera edo ohiko bizileku gisa erabiltzearen frogak).

Aurkeztutako alegazioak ekitaldi batetarako onartuak izan baziren eta hurrengo ekitaldian inor erroldatuta ez duen etxebizitza bada, gainkargua duten etxebizitzaren zerrendan sartuko da eta jabeari jakinaraziko zaio errekarguaren gai jotzen den zerrenda horretan sartu dela, egoki deritzen alegazioak aurkeztu ahal izateko.

VII. Azken xedapena

Transkribaturiko Ordenantza Fiskala eta Ordenantzaren zati osagarri den Eranskinean dauden karga tasak, eranskinean adierazten diren egunetan izandako Udalbatzetan onartu ziren eta 2026ko urtarilaren 1ean sartuko dira indarrean eta aldatu edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko dira.

Eranskina

Ondasun Higiezin mota	%
Industri eta zerbitzu izaeradun lusailetan dauden Ondasunei ezarritako Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren zerga tasa, legeek ez badute bestelakorik esaten	0,60
Gainerako lursailen Ondasunei ezarritako Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren zerga tasa	0,3418
Landa lurren gaineko Ondasun Higiezinaren Zergari aplikagarri den zerga tasa	1,10

6.1.1 artikuluan aipatzen den errekargua	% 50
--	------

Bilkuren data: ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak Erregulatuko dituen Ordenantza Fiskala, eranskin hau beronen zati osagarri dena, behin



Azpeitiko Udala

betiko onartu zen 1989ko urriaren 2ko Udalbatzaren erabakian, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

Dagozkion aldaketak, eranskina barne, behin betiko onartu ziren, 1991ko irailaren 25ean, 1994ko urriaren 17an, 1995eko urriaren 5ean, 1996ko urriaren 24ean, 1997ko urriaren 14ean, 1998ko urriaren 22an, 1999ko urriaren 22an, 2000ko urriaren 25ean, 2001eko irailaren 13an, 2002ko urriaren 16an, 2003ko abenduaren 2an, 2004ko urriaren 13an, 2005eko urriaren 6an, 2006ko urriaren 5ean, 2007ko urriaren 4, 2008ko urriaren 16ko, 2010eko martxoaren 4ko, 2010eko azaroaren 4an, 2011ko urriaren 21ean, 2012ko azaroaren 6an, 2013ko urriaren 16an, 2014ko urriaren 7an, 2015eko urriaren 6an, 2016ko urriaren 4ean eta 2017ko urriaren 3ko, 2019ko urriaren 15eko, 2020ko urriaren 8ko, 2021eko urriaren 5eko, 2022ko urriaren 4ko, 2023ko urriaren 3ko, 2024ko urriaren 8ko eta 2025eko urriaren 7ko Udalbatza erabakietan, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



2. Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren ordainkizunak zehazteko funtsezko osagaiak arautzen dituen zerga agintaraudia.

I. Izaera eta zergagaia

1. Artikulua.

1. Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga bide publikoetatik ibiltzeko gai diren trakzio mekanikodun ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zuzeneko tributua da, haien mota, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein direla ere, eta zirkulazio baimenean ageri den helbidea Azpeitiko udalerrikoa denean exijitzen da.

2. Ibilgailua zirkulatzeko gai izango da bidezko erregistro publikoetan matrikulatua izan denean eta haietan oraindik baja emanda ez dagoenean. Aldi baterako baimena dutenak eta turismo matrikula daramatenak ere zirkulatzeko gai izango dira zerga honen ondorioetarako.

3. Ondoko hauek ez daude zerga honi lotuta:

a) Aspaldiko modeloak izateagatik erregistroetan baja emanda egon arren, kasu berezietan zirkulatzeko baimendu daitezkeenak haientzat antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla-eta.

b) Trakzio mekanikodun ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak, hauen karga erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez denean.

II. Salbuespenak

2. Artikulua.

1. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Era berean salbuetsirik daude Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko edo zauritu zein gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.



Azpeitiko Udala

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. Eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a) 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako desgaitasun maila aitortua duten pertsonak, mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badaude. Mugikortasuna murriztuta dutela joko da Mugikortasun Jardueren Mugen azpibaremoan, desgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsian, 100eko 25eko edo hortik gorako mugikortasun falta ematen zaienean.

b) Desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko egoeran badaude eta Mugikortasun Jarduerak Mugatzeko azpibaremoa aplikatuta (desgaitasuna maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsitako azpibaremoa), ondorioztatzen bada haien mugikortasuna 100eko 75ean edo hortik gorako portzentajea dagoela mugatuta, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, betiere eta ibilgailua gurrpil aulkia eramateko egokituta badago.

Era berean, ibilgailuak zergatik salbuetsita geratuko dira haien titularrek frogatzen dutenean guraso ahalagatik, tutoretzagatik edo kuradoretzagatik beren kargura pertsonaren bat dutela eta haien desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa dela. Ibilgailu baten baino gehiagoren titularrak badira, bakar bati aplikatuko zaio salbuespena.

Desgaitasun egoera desgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren arabera aitortua duten zergadunei ez bazaie desgaitasun maila berriro aitortu, deklaratu edo kalifikatu, zilegi izango dute foru arauaren 2.1 artikuluko e) letran aurreikusten den salbuespena aplikatzea salbuespen horren erregulazioak 2022ko abenduaren 31n indarrean zeukan idazketari jarraituta

f) Udalaren emakida administratibo bidez herri garraio zerbitzuari atxikita dauden autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, horien plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa bada.

g) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makineria, Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartila dutenean.

2. Artikulu honen 1 ataleko e) eta g) hizkietan aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, interesatuek eskaera bat aurkeztu beharko dute eta ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adierazi. Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.



3. Aurreko atalean jasotakoaren ondorioetarako, ibilgailuen titularrek udalerrri honetan egon beharko dute eroldatuta, eta zergatik salbuesteko eskaera Udaletxeko Erregistro Orokorrean idatziz aurkeztu. Eskaerari honako agiriok erantsiko dizkiote:

a) Ibilgailuak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat direnean edo ezinduen izenean eta horiek bakarrik erabiltzeko matrikulatuta daudenean:

- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Gizartekintzak edo bere ordezkariaren erakunde edo agintari administratiboak luzatutako ziurtagiri originala.

b) Artikulu honetako e) apartatuaren arabera minusbaliotasuna duen pertsonaren bat ardurapean duten pertsonen titularitatedun ibilgailua denean:

- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Gizartekintzak edo bere ordezkariaren erakunde edo agintari administratiboak luzatutako ziurtagiri originala.
- Minusbaliotasunadun pertsonarekin duen harremana egiaztatuta.

c) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta nekazaritzako makinak badira:

- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan altan izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatuta.

III. Subjektu pasiboak

3. Artikulua.

Honako hauek dira zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisiko zein juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorren 35. Artikuluan aipatutako entitateak, zirkulazio baimenean ibilgailua beren izenean ageri bada.

IV. Zergaldia eta sortzapena

4. Artikulua.

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean. Horrelakoetan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, eta Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

V. Zerga kuota

5. Artikulua.

1. Eranskinean jasota dauden tarifen taulari jarraiki exijituko da zerga.



Azpeitiko Udala

2. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan proportzionalki banatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja ematen zaion hilabetea barne.

Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota modu proportzionalen banatuko da.

3. Aurreko ataleko tarifak aplikagarri izango dituzten ibilgailu motak zehazteko, kontuan hartuko da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretua, hain zuzen ere, ibilgailu mota desberdinen kontzeptua ezarri eta Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak aplikatzeko arauak finkatzen dituenak. Zehazki esanda:

- 1. Zerga honen ondorioetarako, bere tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu mota desberdinen kontzeptua abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. Eranskinean jasotakoa izango da.
- 2. Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismotik eratorritakoek turismo gisa tributatu dute beren potentzia fiskalaren arabera. Ez da horrela izango, ordea, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraiatu dezaketenean, kamioi gisa tributatu baitute orduan.
- 3. Autokarabanek turismo gisa tributatu dute beren potentzia fiskalaren arabera.
- 4. Edozein kasutan ere, tarifa horien D) hizkian adierazitako traktoreen izen orokorrak honako hauek ere hartzen ditu: «traktokamioiak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak» eta trakzio mekanikodun beste ibilgailuek garraiatu edo eramanak izan gabe bide publikoetatik ibil daitezkeen makina autobultzatuak.
- 5. Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuartizikloak motozikletatzat hartuko dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera tributatu dute. Kuartiziklo arinek, beren aldetik, ziklomotore gisa tributatu dute.
- 6. Ibilgailu artikulatuen kasuan, garraiatzeko indarra daramanak eta atzetik eramandako atoei eta erdiatoiei batera eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dute.
- 7. Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, V. eranskinean xedatutakoaren arabera ezarriko da.

VI. Hobariak

6. Artikulua.

1. Izaera orokorrean, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzerako eraginik. Dena den, onura fiskala likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, onura emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.

Hobaria interesatuek eskatu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak hobaria onartu ondoren, agiri bat luzatuko du eman dela frogatzeko.

2. Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna dutenek %100eko hobaria izango dute zerga kuotan. Ez bada fabrikazio



Azpeitiko Udala

eguna ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

3. Ibilgailu elektriko edo hibridoak:

3.1. Ibilgailu elektrikoak: % 90eko hobaria.

3.2. Ibilgailu hibridoak: % 50eko hobaria.

Hobari hau eskaera egin eta 4 urtez izango dute.

4. Familia ugariaren titularitatea duten subjektu pasiboentzat ondorengo hobari-eskala ezarri da familiako diru-sarreraren arabera. Familiako PFEZko aitortpenen diru-sarrera gordinen batura hartuko da familiako diru-sarrera kopuru gisa.

Diru-sarrera gordina	0,00 € - 28.500,00 €	28.500,01 € - 59.500,00 €	59.500,01 € - 90.000,00 €	> 90.000,00 €
Hobaria	% 40	% 30	% 20	0

Hobaria izateko baldintzak eta zehaztapenak:

Urtarrilaren 1etik martxoaren 31 arteko epean urtero aurkeztu beharko da eskaera, etxeko adin nagusiko guztiek sinatuta. Hobari eskaerak ,egiten den urteko ordainagirian izango du eragina.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Azpeitiko Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

- Polizia Zuzendaritza Nagusia: Nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea.
- Foru Ogasunak: PFEZ kontsulta.
- Trafiko Zuzendaritza Nagusia: ibilgailuaren datuen kontsulta
- Eusko Jaurlaritza: Familia ugarien tituluen kontsulta.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

- Familia unitate bakoitzak soilik, 5 plaza edo gehiago dituen turismo batentzat izango du hobaria.
- Ibilgailuak gehienez 13,99 zaldi fiskal izan beharko ditu.
- Familia ugari horretako kide guztiek Azpeitiko etxebizitza berean egon behar dute erroldatuta.

Izaera orokorrean, hobaria eskaera egin eta ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen eta ez du atzera eraginik. Dena den, familia ugariaren onura fiskala eskatzen bada likidazioa ordaintzeko borondatezko epearen barruan, hobaria emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.



VII. Kudeaketa eta likidazioa

7. Artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den helbidea bere udalerrikoa bada, zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea, eta orobat, zerga kudeaketan emandako egintzak berrikustea Azpeitiko Udalaren ardura da.

8. Artikulua.

Matrikulazioaren eta zirkulatzeko baimenaren ondorioz zergan alta ematen zaien ibilgailuen kasuan, autolikidazio erregimenean kudeatzen da zerga, eta gainontzeko ibilgailuen kasuan, berriz, Udalak urtero egiten duen Erroldaren bidez.

Aitorpen-likidazioak Udaletxean aurki daitezkeen inprimaki normalizatuak erabiliz egingo dira. Aitorpen-likidazio horiek kalkulurako beharrezkoak diren elementuak jasoko dituzte, eta agiri hauek erantsita aurkeztuko dira: ibilgailua erosi edo aldatu izanaren frogagiriak, ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskaleko zenbakia.

Aitorpen-likidazioa behin bere esku duela, interesatuak bulego kudeatzailean edo entitate laguntzaile batean ordaindu ahal izango du zerga kuotaren zenbatekoa. Edozein kasutan ere, ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatuko du dagokion zenbatekoa ordaindu dela, eta aitorpen inprimakia egiaztatu izana adieraziko du.

9. Artikulua.

1. Trafiko Buruzagitzari ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun agiria edo behin betiko baja eskatzen diotenek Zerga ordaindu izana frogatu beharko dute aldez aurretik.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari haien erreformaren berri ematen diotenean, Zerga honen eraginetarako duten sailkapena aldatzen bada betiere, eta orobat, ibilgailuak transferitu, zirkulazio baimenean ageri den helbidea aldatu edo horiei baja ematen diotenean, zergaren azken ordainagiria ordaindu izana frogatu beharko diote aurrez Trafiko Buruzagitzari. Horrek ez du eragotziko, dena den, kontzeptu horrengatik sortu, likidatu, kobrantzara aurkeztu eta preskribitu ez diren zor guztien ordainketa kudeaketa eta ikuskaritza organoen bitartez exijitu ahal izatea.

Hamabost urteko edo hortik gorako antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ordainketa frogatzeko obligaziotik kanpo geratzen dira.

3 Trafiko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia espedienterik izapidetuko, aurretik Zerga ordaindu izana frogatzen ez bada.

VIII. Betebehar formalak eta zerga arlokoak

10. Artikulua.

Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko bizilekukoa izan dadin.



IX. Erroldak

11. Artikulua.

1. Matrikulatuta dauden edo zirkulatzeko gai diren ibilgailuen kasuan, zergaren urteko kuotak urte bakoitzeko lehenengo lauhilekoaren barruan eta Udalak erabakitzen duen kobrantza aldian ordainduko dira. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ediktuak argitaratuz eta legeriak aurreikusten dituen edo egoki jotzen diren bestelako baliabideak erabiliz emango da horren berri.

2. Aurreko atalean araututako kasuan, urteko errolda erabiliz kobratuko dira kuotak. Erroldaren aldaketak Trafikoko Erregistro Publikoaren datuetan oinarrituko dira.

3. Errolda edo zergaren matrikula jendaurrean erakutsiko da interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Horretarako epea hilabetekoa izango da, kobrantza aldia hasten denetik aurrera.

Jendaurreko erakusketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta subjektu pasibo bakoitzari likidazioa jakinarazteko balio izango du.

X. Itzulketak

12. Artikulua.

Ibilgailuari zerga sortu ondoren ematen bazaio behin betiko baja eta, ordurako, kuota ordainduta badago, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoaren itzulketa eskatu ahal izango du Ordenantza Fiskal honen 5.2 atalean aipatzen den banaketa proportzionala aplikatuta.

13. Artikulua. Xedapen gehigarria

11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, zerga honi Zergen Foru Arau Orokorrak kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari buruz nahiz zerga urraketa eta zigorreki buruz jasotzen dituen arauak aplikatuko zaizkio.

14. Artikulua. Amaierako xedapena

Ordenantza honek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du indar, eta bere eranskinak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera; indarrean jarraituko dute horiek indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

15. Artikulua. Xedapen indargabetzailea

Indargabeturik geratzen da Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotak zehazteko oinarritzko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala, 1989ko urriaren 2an behin betiko onartua.

Eranskina



Azpeitiko Udala

Ibilgailuaren potentzia eta mota	kuota/ €	Hainbestekaria
A) Turismoak		
9 zaldi fiskaletik beherakoak	46,16	2,5099
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	92,31	2,5099
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	153,86	2,5099
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	222,81	2,5963
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	293,29	2,6581
20 zaldi fiskaletik gorakoak	366,82	2,7200
B) Autobusak		
21 eserleku baino gutxiagokoak	204,53	2,4553
21etik 50 eserlekura bitartekoak	291,30	2,4553
50 eserleku baino gehiagokoak	364,12	2,4553
C) Kamioiak		
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	103,81	2,4553
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	204,53	2,4553
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	291,30	2,4553
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak.	364,12	2,4553
D) Traktoreak		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	43,39	2,4553
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	68,18	2,4553
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	204,53	2,4553
E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek eramandako atoi eta erdi atoiak		
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilg. dutenak	43,39	2,4553
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	68,18	2,4553
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	204,53	2,4553
F) Bestelako ibilgailuak		
Ziklomotoreak	11,32	2,5099
125 zk-ra bitarteko motozikletak	11,32	2,5099
125 zk-tik 250 zk-rabitartekomotozikletak	19,38	2,5099
250 zk-tik 500 zk-rabitartekomotozikletak	38,78	2,5099
500 zk-tik 1.000 zk-rabitartekomotozikletak	77,56	2,5099
1.000 zk-tik goragoko motozikletak	155,09	2,5099

Bilkuren data: trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak Erregulatuko dituen Ordenantza Fiskala, eranskin hau beronen zati osagarri dena, behin betiko onartu zen 2004ko urriaren 13an, 2005eko urriaren 6an, 2006ko urriaren 5ean, 2007ko urriaren 4an, 2008ko urriaren 16ko, 2010eko azaroaren 4ean, 2011ko urriaren 21ean, 2012ko azaroaren 6an, 2013ko urriaren 16an eta 2017ko urriaren 3an, 2018ko urriaren 2an, 2019ko urriaren 15ean, 2021eko urriaren 5ean, 2022ko urriaren 4ko, 2023ko urriaren 3ko, 2024ko urriaren 8ko eta 2025ko urriaren 7ko Udalbatza erabakian, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



3. Udalerrian egiten diren ekonomia jardueren gainerako zergaren ordainarazpenerako hainbat ahalmen arautzen dituen agintarautia

I. Xedapen Orokorrak

1. Artikulua

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak finkatu ditu, Ekonomia Jardueren gainerako Zergari buruzko uztailaren 5eko 13/1989 Foru Araueko 10 eta 11 artikuluan aurrikusitako ahalmenak eta Presazko Neurri Fiskalen apirilaren 5eko 7/1991 Foru Arauak emandako idazketan aipatzen den azken agindua erabiliz.

II. Gutxieneko kuoten haztapena

2. Artikulua

Udalerrian honetan zergapetutako jardueretarako zerga honen Tarifetan Foru Aldundiak ezarri dituen gutxieneko kuotak 2012ko uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauako, 11. artikuluan zehazten den ponderazio koefizientearekin gehituko dira. Aldatutako kuota hauek 1. ERANSKINean, 2. puntuan azaltzen den gehikuntza koefizientearen arabera igoko dira.

3. Artikulua

Udalerrian barnean Zerga honek zergapetutako jarduerak gauzatzen diren aretoen kokapena baloratzeko, aurreko 2. ERANSKINean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie eta bide publikoak duen kategoria kontuan hartuko da.

4. Artikulua

Gehikuntza koefizientea eta kokapen indizea honen 2. eta 3. artikuluetan hurrenez-hurren finkatzen direnak, ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialei eta bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

5. Artikulua

Aipatutako 3.artikuluan esandako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza edo auzoak 2. ERANSKINean adierazitako kategorien arabera sailkatzen dira.

III. Zerga kuota

6. Artikulua

Zerga honi dagokion kuota honela eratzen da: tarifek finkatzen dituzten kuota minimoei ordenantza honetako 2. eta 3.artikuluen arabera dagozkien ponderazio koefiziente, gehikuntza koefizientea, kokaleku indizea eta kasua balitz Foru Errekarguaren arabera dagokion indizea aplikatuta.

IV. Kudeaketa arauak

7. Artikulua. Hobariak



a) Kuotaren %50eko hobaria, jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen bost urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxieneko kuota ordaintzen dutenentzat.

Hobaria aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu ez izana. Jarduera ekonomikoan lehenago beste titularitate batekin aritu dela ulertuko da, besteak beste, bartegiteak, zatiketak edo jarduera adarren ekarpenak egiten direnean.

b) Kuotaren %30era bitarteko hobaria enplegua sortzen duten subjeto pasiboentzat, baldin eta udal kuota ordaintzeaz gainera, hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batez bestekoa aurreko zergaldiaren aldean gehitu badute.

Hobariaren portzentaia, kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batz besteko gehikuntzaren portzentaia izango da, %30eko mugarekin.

c) Zerga honen kuotaren %50eko hobaria izango dute, kooperatiba babestuek, federazio eta konfederazioek eta eraldaketarako nekazaritza sozietateek, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauak jasotakoaren arabera.

8. Artikulua

1.- Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak Gipuzkoako Foru Aldundiarengan eskuordetu ahal izango ditu Udalbatzak aldez aurretik erabakitako eran, edukiarekin eta neurrian, eta horretarako hitzarmena sinatuko da indarrean jarriko den urtearen haisera baino lehen.

2.- Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen seihilekoaren barruan. Era berean, hitzarmen horien salaketa ere Aldizkari horretan bertan argitaratuko da.

3.- Artikulku honen 1. zenbakian erabakitakoa horrela bada ere, Foru Aldundiarenak izango dira kuota probintzial eta bereziei dagokienean han adierazitako ahalmenak.

V. Azken xedapena

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta horren 1. eta 2. ERANSKINetako koefizienteak, indizeak eta bide publikoen kategoriak Udalbatzak onartu zituen, eta 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta erregelamenduaren arabera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko da.

I. Eranskina

1. Gutxieneko kuotei aplikatuko zaizkien ponderazio koefizienteak (2012ko uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauko 11. artikulua zehaztuak):

Negozio zifraren zenbateko garbia (euroak)	Koefizientea
1.000.000,00 eta 5.000.000,00 bitartean	1,29
5.000.000,01 eta 10.000.000,00 bitartean	1,30
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 bitartean	1,32
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 bitartean	1,33
100.000.000,00 euro baino gehiago	1,35
Negozio-zifra garbirik gabe	1,31



Azpeitiko Udala

2. Ezarritako gutxieneko ordainsarien gehikuntza koefiziente bakarra: 2,2000

II. Eranskina

Udalerriko bide publikoen sailkapena.

Maila: bakarra Indizea: 1 (bat)

Udalerriko ekonomia jardueren gaineko zerga ordainarazteko zenbait ahalmen Erregulatzen dituen Ordenantza Fiskala, 1. eta 2.eranskinak beronen zati osagarri direnak, behin betiko onartu zen adierazitako 1991ko irailaren 25eko Udalbatza erabakian.

Dagozkion aldaketak, 1 eta 2 eranskinak barne, behin betiko onartu ziren, 1994ko urriaren 17an, 1995eko urriaren 5ean, 1996ko urriaren 24ean, 1997ko urriaren 14ean, 1998ko urriaren 22an, 1999ko urriaren 22an, 2000ko urriaren 25ean, 2001eko urriaren 11n, 2002ko urriaren 16an, 2003ko urriaren 2an, 2004ko urriaren 15ean, 2005eko urriaren 6ko, 2006ko urriaren 5ean, 2007ko urriaren 4an, 2008ko urriaren 16an, 2013ko urriaren 16an, 2015eko urriaren 6an, 2016ko urriaren 4an eta 2018ko urriaren 2an Udalbatza erabakietan, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



Azpeitiko Udala

4. Hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskala

I. Xedapen orokorrak

1. Artikulua.- Ezarri beharreko araudia

Udal honek Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta eskatu du, indarreko ordenantzaren arabera eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzeari buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan eta Zerga honi buruzko 16/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorrita.

2. Artikulua. Lurralde-eremua.

Ordenantza Azpeitia udalerrri osoan ezarri da.

II.- Zergagaia

3. Artikulua.- Zergagaia

1.- Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko zerga bat da, eta hiri-lurren balio-gehitzea zergapetzen du, lursail horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzearen ondorioz, edo jabaria mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzearen ondorioz.

2.- Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira hiri-lurtzat:

- a. Hirigintza arloko plangintzak hirikotzat, urbanizatutzat edo horien baliokidetzat sailkatzen edo definitzen dituenak.
- b. Lurzoru urbanizagarritzat jotzen diren lursailak, edo lurralde eta hirigintza arloko antolamendurako tresnek lurzoru urbanizatuaren egoeran sartzea aurreikusi edo horretarako aukera eman dutenak, betiere sektore edo eremu espazial mugatuetan sartuta badaude. Aurrekoez gain, horrelako izaera duten gainerako lurzoruak barne hartzen ditu, horiek garatzeko zehaztapenak ezartzen dituen hirigintza arloko tresna onartzen den unetik aurrera.
- c. Nekazaritza-legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak, betiere zatikatze horrek nekazaritza-erabilera indargabetzen badu, eta horrek ez badu landa-izaera aldatzen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

III.- Aplikazio eremutik kanpo

4. Artikulua.- Zergari lotuta ez daudenak

Honako hauek ez dira zerga honen pean egongo:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako landa-lurren balio-gehitutzak. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hirikotzat jo behar diren lursailek izango duten balio-gehitutzaren mende egongo da, katastroan edo haren erroldan halakotzat jasota egon edo ez.



Azpeitiko Udala

2. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ekarritako ondasun eta eskubideen ekarpenak, haien alde eta horien ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak eta ezkontideei beren ondasun komunak ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Ez da zergari lotuta egongo honako hauen artean ondasun higiezinak eskualdatzen direnean ere: ezkontideak; maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikotekideak; eta ezkontzaren deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa dagoenean epaiak betetzearen ondorioz, seme-alaben alde egindakoak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edozein dela ere.

3. Lursailen eskualdaketak, horiek eskualdatu eta eskuratu direneko balioen artean gehikuntzarik ez dela egon egiaztatu bada.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatu nahi duen erakundeak eskualdaketa aitortu eta eskualdaketa edo eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu beharko ditu. Ondorio horietarako, erakunde interesduntzat hartuko dira ordenantza honen 6. artikuluan aipatzen direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, kasu bakoitzean hurrengo balio hauetako handiena hartuko da kontuan: eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasotakoa edo, hala badagokio, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Gainera, ondorio horietarako, ezin izango dira eragiketa horiek zergapetzen dituzten gastu edo zergak zenbatu.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin bat eskualdatzen denean, ondorio hauetarako honako hau hartuko da lurzoruaren baliozat: zergaren sortzapen-datan luraren katastro-balioa guztizko katastro-balioarekiko ordezkatzeko duen proportzioa aplikatuz ateratzen den balioa. Gainera, proportzio hori eskualdatze-balioari eta, hala badagokio, eskuratze-balioari aplikatuko zaio eta bi hamartarrez adierazi beharko da.

Eskuraketa edo eskualdaketa irabazi-asmorik gabekoa izan bada, aurreko lerroketan ezarritako arauak aplikatuko dira eta, hala badagokio, konparatzeko lehenago aipatutako bi baloreetatik lehena hartuko da kontuan, hau da, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aitortutakoa.

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren araututako araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketetatik eratorritako hiri-lurrak eskualdatzen direnean, foru-arau horren 111. artikuluan aurreikusitakoaren babesean ekarritako lursailen buruzkoak izan ezik, jarduera-adar batean integratuta ez daudenean.

IV.- Salbuespenak

5. Artikulua.- Salbuespenak

1. Zerga honetatik salbuetsita daude egintza hauen ondorioz agertzen diren balio-gehikuntzak:

a) Zortasun-eskubideen sorrera eta eskualdatzea.

b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 4.2)e) artikuluan aurreikusitako salbuespena ezartzearen ondorio diren ondasunen eskualdaketak, horien jabeek edo eskubide errealeko titularrek higiezin horiek iraunarazteko, berroneratzeko edo eraberritzeko obrak beren kargura egin dituztela egiaztatzen dutenean.



Azpeitiko Udala

Salbuespen honen eraginkortasunaren baldintza zaintze, hobetze edo birgaitze obrek udalaren baimena izatea da. Era berean, beharrezkoa izango da aipatutako lanak ondasuna besterendu aurre aurreko 2 urteetan gauzatzea.

Ondorio horietarako, iraunarazteko, berroneratzeko edo eraberritzeko obrak eraikinen birgaikuntza obrak egitura, fatxada edo estalkinen eta antzekoen sendotze lanen eta tratamenduaren bitartez eraikin horiek berreraikitzeak behar duenak dira, beti ere obra horien balio kostua balio katastralaren %25 baino handiagoa bada.

2. Era berean, dagozkion balio-gehikuntzak salbuetsita egongo dira, hura ordaintzeko betebeharra honako erakunde hauei dagokienez:

a. Estatu, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Estatuko erakunde autonomoak eta lurralde-administrazio horietako antzeko izaera duten zuzenbide publikoko erakundeak.

b. Udal hau eta gainerako toki-erakundeak (udalerriaren barrukoak zein udalerri bera kide dutenak), udalaren baitako zuzenbide publikoko erakundeekin batera, horiek aipatutako Administrazio Publikoen antzeko izaera dutenean.

c. Ongintzako edo irakaskuntza arloko ongintzako erakundeak.

d. Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

e. Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena aitortuta duten erakundeak.

f. Administrazio-emakida itzulgarrien titularrak, horiei atxikitako lursailei dagokienez.

g. Gurutze Gorria eta erregelamendu bidez zehaztutako antzeko beste erakunde batzuk.

h. Irabazi-asmorik gabeko erakunde batek zerga hori ordaintzeko legeko betebeharra duenean, irabazi-asmorik gabeko erakunde zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurak eskualdatzen badira edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eratzen badira eta irabazi-asmorik gabeko erakunde batek kostu bidez egiten baditu, zerga horren salbuespena egiteko, lursail horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Era berean, salbuespen hori aplikatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeek apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 16. artikuluan 1. paragrafoan araututako aukera baliatu dutela Udalarik jakinaraztea eta Foru Arau horren II. tituluan jasotako zerga-araubide bereziari buruzko baldintza eta balizkoak betetzea ezinbestekoa izango da.

V.- Subjektu pasiboak

6. Artikulua.- Subjektu pasiboa

1. Honako hauek dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun gisa:

- a. Lursailen eskualdaketetan edo irabazpidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eratzen edo eskualdaketan, lursaila eskuratzen dutenak (pertsone fisiko zein juridikoak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamina gauzatu gabeko jaraunspenak) edo dagokion eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaien pertsonak.



- b. Lursailen eskualdaketetan edo ordainbidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskualdatzen dutenak (pertsona fisiko zein juridikoak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamena gauzatu gabeko jaraunspenak) edo dagokion eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duten pertsonak.

2. Aurreko paragrafoaren b) letran aipatutakoetan, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko dira Foru Zerga Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen den pertsona fisiko zein juridikoak edo erakundeak, bai eta testamentu-ahalmena gauzatu zain dagoen jaraunspenak ere, baldin eta lursaila eskuratzen badute edo dagokion eskubide erreala haien alde eratu edo eskualdatu bazaie, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean eta hura ordezkaria izendatzera behartuta ez badago, edo ordezkaria izendatzera behartuta egon arren, zerga honen bidez ordezkatzeko duenaren zerga-zorra ordaintzeko betebeharrari modu solidarioan erantzun ez badio.

3. Ohiko etxebizitzaren hipoteka-exekuzioaren ondorioz lursailak eskualdatzen direnean, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da lurra eskuratzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen den erakundea.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezkari ezingo dio zergadunari eskatu ordaindutako zerga-betebeharraren zenbatekoa.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 3/2014 Foru Arauaren 87. artikuluan hala definitutakoa.

4. Baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurriari buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aplikazio-eremuaren barruan dauden zordunek egindako eskualdaketetan, arau horren eranskinaren 3. paragrafoan aurreikusitako etxebizitza ordainean ematearen ondorioz, higieztina eskuratzen duen erakundea hartuko da zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat. Hala, ordezkari ezin izango dio zergadunari ordaindu beharreko betebeharren zenbatekoa eskatu.

VI. Zerga oinarria

7. Artikulua.- Zerga-oinarria zehaztea

1. Zerga honen oinarria sortzapenaren unean agerian jarritako eta gehienez ere 20 urteko epean hiri-lurrek izandako balioaren benetako gehikuntza izango da. Hurrengo 2. paragrafoan xedatutakoa baztertu gabe, hura zehazteko, sortzapenaren uneko lurraren balioa I. eranskinean ezarritako koefizientearekin biderkatuko da, ordenantza honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

2.- Subjektu pasiboak eskatuta, zergaren foru arauaren 1. Artikuluko 3. Apartatuan ezarritako prozeduraren arabera, balio-gehikuntzaren zenbatekoa aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, balio-gehikuntzaren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

8. Artikulua.- Lurraren balioa.



Lurrak sortzapenaren unean duen balioa arau hauetan ezarritakoaren arabera izango da:

1. Lursailen eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako finkatutakoa izango da.

Hala ere, aipatutako balio hori balio-ponentzia baten ondorioa denean eta hura onartu ondoren, planeamenduan aldaketarik jaso ez bada, zerga hori, behin-behinean, txosten horren arabera likidatu ahal izango da. Horrelakoetan, behin betiko likidazioan lurren balioa aplikatuko da, sortzapen-datari dagokionez izapidetzen diren balorazio-prozeduren arabera lortu ondoren.

Lurzoruak, hiri-izaera izan arren, zergaren sortzapenean katastroko balio jakinik ez badu, udalak likidazioa egingo du katastroko balio hori zehaztua denean. Gainera, balio hori sortzapen-uneari egokituta egongo da.

2. Jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eraketan eta eskualdaketan, I. Eranskinean aipatutako urteko koefizienteak ezarriko zaizkio aurreko paragrafoan definitutako balioaren zatiari; zati horretan islatuta dago, hain zuzen, eskubide horien balioa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutako arauari jarraiki kalkulaturakoa.

Ondorio horietarako, arau hauek bete beharko dira:

- a. Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko 100eko 2, ehuneko 70 gainditu gabe.
- b. Biziarteko usufruktuetan, balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70 dela zenbatetsiko da, gozamendunak 20 urte baino gutxiago dituenetan eta, adinak gora egin ahal, beste urte bakoitzeko 100eko 1 gutxituko da, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.
- c. Pertsona juridiko baten alde eratutako usufruktua, 30 urtetik gorako edo zehaztu gabeko eperako ezarri bada, zergei dagokienez, suntsiarazteko baldintzari lotutako jabetza osoaren eskualdatzea dela ulertuko da.
- d. Aurretik eratutako gozamen-eskubide baten eskualdaketan, aurreko arauari jarraiki eratu zen egunean esleitutako ehuneko bera aplikatuko da.
- e. Jabetza soilaren eskubidearen balioari dagokionez, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko aldearen arabera zenbatuko da. Era berean, aldi baterakoak diren biziarteko usufruktuetan, jabetza soilaren baloratzeko, aurreko lehenengo zenbakiko arauetatik balio txikiena ematen diona ezarriko da.
- f. Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealek balioa kalkulatzeko, ondasunen balioaren 100eko 75 aplikatuko da. Ondasun horiei ezarri zitzaizkien aldi baterako edo biziarteko gozamenak balioztatzeko arauak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

3. Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago igotzeko edo lurzoruaren azpian eraikuntza egiteko eskubideak eratzean edo eskualdatzean, azalera-eskubide errealek dagoenik eragin gabe, ordenantza honen I. Eranskinean aipatutako urteko koefizienteak 8. artikuluko honen 1. paragrafoan zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, baldin eta, horri dagokionez, eskualdatzeko eskrituran finkatutako proportzionaltasun-modulua islatzen badu edo, halakorik ezean, lur arrasean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azaleraren eta behin eraikita horiek duten azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzearen ondoriozkoa.



4. Derrigorrezko desjabetzeen kasuetan, ordenantza honetako I. Eranskinean aipatutako urteko koefizienteak lurraren balioari dagokion balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, 8. artikuluko honetako 1. paragrafoan zehaztutako lurraren balioa txikiagoa denean izan ezik; izan ere, halakoetan balio justua lehenetsiko da.

9. Artikulua.- Balio-gehikuntza sortu den aldia

Balio-gehikuntza sortu den aldia gehikuntza hori agerian jarri den urte-kopurua izango da.

Aplikazio-eremutik kanpoko kasuetan, Foru Arauak bestelakorik adierazi ezean, ondorengo lur-eskualdaketa batean agerian jarritako balio-gehikuntza sortu den aldia kalkulatzeko, aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaren aurreko sortzapena gertatu zen eguna hartuko da eskuratze-datatzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezinen ondorengo eskualdaketa, lurren balio-gehikuntza agerian jarri den urte-kopurua zenbatzeko, ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia.

Igarotako urte-kopurua zenbatzeko, urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, urte-zatiak kontuan hartu gabe. Sortu den aldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hilabete osoen kopurua kontuan hartuta hainbanatuko da, hau da, hil-zatiak kontuan hartu gabe.

10. Artikulua.- Koefizienteak

Sortzapenaren unean lurrak duen balioari (aurreko apartatuetan xedatu da nola kalkulatu balio hori) balio gehikuntzaren sorreraldi bakoitzerako indarrean dagoen gehieneko koefizientea aplikatuko zaio, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikulua ezarritakoari jarraituz.

Aipatutako xedapenean aurreikusitako gehieneko koefizienteak eguneratuz gero, alkateari ahalmena ematen zaio aplikagarriak diren koefiziente berriak ebazpen bidez argitaratzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren web orrian eta iragarki taulan.

VII.- Karga tasa, kuota eta hobariak

11. Artikulua.- Karga-tasa

Aplikatu beharreko karga-tasa kasu bakoitzean dagokiona izango da, II. eranskinaren arabera.

12. Artikulua.- Kuota eta hobariak

1. Zerga honen kuota zerga-oinarriari dagokion karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da.

2.- Zergaren kuota likidoa kuota osoari dagokion hobaria aplikatzearen emaitza izango da, hala badagokio.

VIII.- Sortzapena

13. Artikulua.- Sortzapena



Azpeitiko Udala

1. Honako kasu hauetan sortzen da zerga:

- a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostuen bidez edo doan, bizien artean edo heriotzaren ondorioz, eskualdaketa egunean.
- b) Jabaria mugatzeko edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa egiten den egunean.

2. Aurretik xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira eskualdatze-datatzat:

- a) Bizien arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa egiletsi denean eta, agiri pribatuetan, agiri horiek erregistro publikoan sartu edo inskribatu direnean edo, bere lanbidea dela eta, funtzionario publiko bati eman zaionean.
- b) Heriotza-ziozko eskualdaketa, kausatzailea hil deneko data.

3. Baldin eta, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurrak edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zerga berari itzultzeko eskubidea izango du. Beti ere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatu bada. Interesatuak elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko asmoa dagoela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak eginbeharrak ez betetzearen ondorioz adierazi bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

4. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua efekturik gabe utzi badute, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta egintza zergapeko egintza berritza joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze-ekitaldian adostutakoa eta bai eskariari amore-emate hutsa.

5. Egintzek edo kontratuak baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da, aurreko ataleko arauari jarraituz, dagokion itzulketa egiteko baldintza betetzen denean.

6. Testamentu-ahalmenetan, pertsona jakin batek jarauntsiz ondasunen gozamenerako eskubidea bizi artean duenean, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, oinordetza ireki deneko sortze-datarekin, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenen arauak aplikatuz.

Testamentu-ahalmenetan, gozamina botere hori erabiltzean azkentzen bada, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

- a) Lehen likidazioa, heriotza gertatzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Hala ere, testamentu-ahalmena gauzatzeko epe jakin bat badu, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauen arabera egingo da, ahalmen hori egikaritzeko ezarritako gehieneko epean.



b) Beste likidazio bat, testamentu-ahalmena erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauak erreparatuta, kausatzailea hil zenetik igarotako aldiarengatik, aurrekoagatik ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuta, eta aldea gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Eta b) hizkiari dagokion likidazioa oinordekoena egiten den unean egin beharko da, testamentu-ahalmenaren oinordekoak direla adierazten badu, edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik.

7. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, xedapen-egintzen ondorioz testamentu-ahalmena egikaritzeko dauden jaraunspenak eragindako lursailen eskualdaketetan, eskualdatze horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakarte, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko 16/1989 Zergaren xedapen orokorrak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Oinordetza Zergaren subjektu pasiboa izango da testamentu-ahalmena egikaritzetik gertatzen dena, eta zerga eskualdaketa gertatzen den unean sortuko da.

b) Zerga-kuota zehazteko, likidazio bat egingo da, eskualdaketaren unean sortuko dena, kausatzaileak lurra erosi zuenetik igarotako denboragatik. Gainera, diru-sarrera gisa eman zena kontuan hartuko da 6. paragrafoan xedatutakoaren arabera egindako likidazioan ordaindutakoa.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera xedapen-egintzen ondorioz, testamentu-ahalmena egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez eskuratutako lursailak eskualdatzen direnean, likidazio bat egingo da, eta eskualdaketaren unean sortuko da, jaraunspenaren bidez lurra eskuratu zenetik igarotako denboragatik.

c) Testamentu-ahalmena modu ezeztazinean erabiltzen denean, edo hura azkentzeko arrazoietako bat gertatzen denean, jaraunspen bidez eskuratuak izan arren, testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden lurak eskualdatzen badira, ekainaren 25eko 5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legeak adierazi duen bezala, likidazio bakarra igorriko zaio gozamendunari, aldi baterako edo biziarteko gozamenaren arauen bidez. Lursailaren izaeraren arabera, egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez lursaila eskuratu zuenetik testamentu-ahalmena gauzatu arte igarotako denboragatik. Hobaria testamentu-ahalmena erabiliz azkentzen den kasuetan, likidazio bat igorriko zaio gozamendunari aldi baterako gozamenaren arauen bidez, lurra testamentu-ahalmena egikaritzeko dagoen jaraunspenak eskuratu zuenetik igarotako denboragatik. Likidazio hori jaraunslari dagozkienak egitean egin beharko da, baldin eta testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena erabiltzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunslariak badira.

IX.- Zerga kudeatzea

14. Artikulua.- Zerga kudeatzeko sistema

Aitortzeko sistema

Zerga kudeatzeko Udal honek aitorten-sistema ezartzen du, honako atal hauetan xedatutakoaren arabera:



Azpeitiko Udala

1.- Subjektu pasiboek aitorpena aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egin. Eredu horretan likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak eta gainerako datuak agertuko dira.

Adierazpenarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Bizien arteko egintzei buruzko eskualdaketak: zergak ordaintzeko betebeharra sortu duen egintza edo kontratua formalizatu duen dokumentuaren kopia, publikoa zein pribatua.

b) Heriotzaren kausazko eskualdaketak, jaraunspena esleitu duen eskrituraren kopia edo halakorik ezean:

- Zatiketa-koaderno pribatua, halakorik balego.
- Azken borondatearen ziurtagiria.
- Testamentua edo, hala badagokio, jaraunsleen abintestatuko adierazpena.

c) Eskualdatutako higiezinaren eskuraketaren tituluen kopia.

Bi eskualdatze-motetarako eta, gainera, dohainik bada, ondasunen balorazioa jasotzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioaren/aitorpenaren kopia.

2.- Ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz loturarik ez bada, beren beregi jasoko da hori adierazpenean.

3.- Subjektu pasiboak ordenantza honen 7. artikuluko 2. atalean xedatutakoarekin bat etorritik erabakitzen badu zerga-oinarria, beren beregi jasoko da aitorpenean. Hautatutako aukera ezin izango da aldatu zerga-administrazioak zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, segurtatzeko edo likidatzeko edozein ekintza egin badu, zergapekoak horren berri formala izanda.

4.- Testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden jaraunspenetan, aurreko betebeharrak betetzea horien administratzaileari dagokio. Administratzaileak aitorpena sinatu beharko du eta dagokion zerga-zorra ordaintzeaz arduratuko da.

Era berean, zerga ordaintzearen erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalmena gauzatu zain duen jaraunspenaren administratzailea.

5. Eskatutako salbuespenak edo hobariak agiri bidez justifikatu beharko dira.

15. Artikulua.- Epeak

Aitorpena honako epe hauetan aurkeztu beharko da, zerga sortu den egunetik zenbatzen hasita:

- a. Bizien arteko egintzak direnean, epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da.
- b. Heriotzagatik egintzen kasuan, epea sei hilabetekoa izango da, eta urtebeterra arte luzatu ahal izango da subjektu pasiboak hala eskatuz gero.

16. Artikulua.- Dokumentazio gehigarria eskatzea



Udalak hogeita hamar eguneko epean zergaren likidazioa gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die pertsona edo erakunde interesdunei. Epe hori beste hamabost egunez luzatu ahal izango da, interesdunak hala eskatuta. Gainera, epe horien barruan egindako errekerimenduei erantzuten ez dietenek zerga arloko arau-hausteak egin eta horiei dagozkien zehapenak izango dituzte, dokumentu horiek adierazpena egiaztatze beharrezkoak diren heinean. Dokumentu horiek interesdunak bere onerako alegatutako inguruabarrak frogatzeko bidea baino ez badira, errekerimendua ez betetzeak likidazioa egitea ekarriko du, alegatutako eta justifikatu gabeko inguruabarrak alde batera uzteaz gain.

17. Artikulua.- Beste pertsona edo erakunde batzuk jakinarazteko duten betebeharra

14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hurrengo hauek zerga subjektu pasiboen epe berberetan ordaindu dela jakinarazi beharko diote Udal Administrazioari:

- a. Ordenantza Fiskal honetako 6. artikulua a) letran jasotako kasuetan, bizirik dauden arteko negozio juridikoan eman badira, emaila edo eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.
- b. Aipatutako 6. artikuluko b) letran jasotako kasuetan, eskuratzailerak edo eskubide erreala eratu edo eskualdatu zaion pertsona.

18. Artikulua.- Notarioen betebeharrak

Notarioek nahitaez bidali beharko diote udalari, hiruhileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, aurreko hiruhileko naturalean baimendutako agiri guztiak jasotzen dituen zerrenda edo aurkibidea. Zerrenda edo aurkibide horrek, nolana ere, esku hartzen duten alderdien datuak jaso beharko ditu: izen-abizenak, NAN-zenbakia eta helbidea. Dokumentu horietan, zerga hau udalerrian ordaindu dela agerian uzten duten egitate, egintza edo negozio juridikoak azalduko dira, azken borondatezko egintzak izan ezik. Halaber, epe beraren barruan, sinadurak ezagutzeko edo legitimatzeko asmoz aurkeztu zaizkien dokumentu pribatuen zerrenda bidali beharko dute. Dokumentu horietan egitate, egintza edo negozio juridiko berberak jasota daude. Artikulu honetan ezarritakoak ez du baztertuko Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzarako betebeharrak orokorra.

19. Artikulua.- Aitorpena aurkezteko errekerimendua

1. Deklaratu ez diren zergapeko egitateen berri duenean udalak, 15. artikuluan adierazitako epeen barruan, deklarazio hori egiteko errekerimendua egingo die interesdunei. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

2. Lehen aipatutako errekerimenduak egin ondoren, interesdunek ez badute kasuan kasuko aitorpena aurkezten, Udalak espediente ofizios izapidetuko du, bere esku dauden datuekin, eta dagozkion likidazioa egingo du eta, hala badagokio, sarrera-epeak eta dagozkion errekurtsuen adierazpena adieraziko ditu. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

X. Azken xedapena

Ordenantza honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak eta indarrean jarraituko du hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.



XI. Onartzea

Ordenantza hau Udalbatzak onartu zuen behin betiko, 2022ko apirilaren 5ean egindako ohiko Udalbatzarrean eta aldaketak 2023ko maiatzaren 4ean.

I. Eranskina. Koefizienteak

Koefiziente aplikagarriak, balio-gehituntza sortu den aldien arabera, honako hauek izango dira:

Sortu den aldia	Koefizientea
Urtebete baino gutxiago	0,16
1	0,15
2	0,15
3	0,15
4	0,16
5	0,18
6	0,20
7	0,22
8	0,23
9	0,21
10	0,16
11	0,13
12	0,11
13	0,10
14	0,10
15	0,10
16	0,10
17	0,12
18	0,16
19	0,22
20	0,35

II. Eranskina. Karga tasak

Zerga-oinarriari aplikatuko zaion karga-tasa	% 16,23
--	---------

Hirilurren balio gehitzearen gaineko zerga Arautzen duen Ordenantza Fiskala, eranskin honetako edukinak diren portzentajeen taula eta tarifak beronen zati osagarri direnak, behin betiko onartu zen 1989ko urriaren 2ko Udalbatza erabakian, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

Dagozkion aldaketak, eranskina barne, behin betiko onartu ziren, 1990eko urriaren 4ean, 1994ko urriaren 17an, 1998ko urriaren 22an, 2000ko urriaren 25ean, 2001eko urriaren 11n eta 2003ko urriaren 2an, 2004ko urriaren 13an, 2005eko urriaren 6an, 2012ko azaroaren 6an, 2013ko urriaren 16ko, 2018ko urriaren 2an, 2019ko urriaren 15ean, 2021eko urriaren 5ean, 2022ko apirilaren 5eko, 2023ko maiatzaren 4ean, 2023ko urriaren 3ko, 2024ko urriaren 8ko eta 2025eko urriaren 7ko Udalbatza erabakietan.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala

I. Xedapen orokorrak

1. Artikulua

Udal honek Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko Foru Arau partikularrean aurrikusitakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga ezarri eta exijitzen du Ordenantza honi jarraiki. Tarifa aplikagarriak dituen Eranskina ere honen osagarri da.

2. Artikulua

Ordenantza udalerri osoan aplikatzen da.

II. Zergapeko egitatea

4. Artikulua

Dagokion obra lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea dugu zergapeko egitatea, lizentzia hau lortu edo ez, beti ere, lizentzia ematea Udal honi badagokio.

5. Artikulua

Zergapeko egitatezko baldintzak, hauek dira:

- 1.- Mota guztietako eraikuntza edo instalazio berrietako eraikitze-obrak.
- 2.- Dauden mota guztietako eraikuntza edo instalazioen zabaltze obrak.
- 3.- Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen egituraren eragin dezaketen aldaketa edo berrikuntzak.
- 4.- Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen kanpoko itxuraren aldaketa dakartenak.
- 5.- Eraikuntzaren barne antolamendua aldatzen duten obrak, beraien erabilera edozein delarik.
- 6.- Lurzoruaren Legearen testu bateginaren 58. artikulua 2. atalean jasotzen diren eta behin-behineko izaerarekin egin behar diren obrak.
- 7.- Zerbitzu publikoen instalaziorako obrak.
- 8.- Lur mugimenduak, esate baterako lur-erauzketak, lur berdinketak, indusketa eta betelanak, beti ere, jarduera horiek onartu edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiekturen batean egin beharreko obratzat zehaztu eta programatuta daudenean izan ezik.
- 9.- Eraikuntzak eraistea, erortzeko zorian daudela aitortuak salbu.



Azpeitiko Udala

10.- Lurpeko instalazioak, hauek aparkalekutarako edo industria, merkataritza eta lan jardueretarako direnean, bai eta zerbitzu publikoak eskaintzeko edo lurrazpiari ematen zaizkion beste erabilera batzuetarako badira ere.

11.- Bide publikotik ikusteko moduan jartzen diren propaganda kartelak ipintzea.

12.- Gaitasun ekonomikoa frogatuko lukeen baliabide ekonomikoen inbertsioa dakarren edozein obra, eraikuntza edo instalazio, obra edo hirigintza lizentziari lotua.

Salbuespenak

6. Artikulua

Ez dira zerga honen pean egongo Udal honen jabetzako higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, beti ere obraren jabetzat Udala jotzen bada.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita dago edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horien jabeak Gipuzkoako Foru Aldundia, Autonomi Erkidegoak, Estatua edo Toki Entitateak direnean, baldin eta, zergari lotuta egonik, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko eta herrien eta hauen ur zikinen saneamendura zuzenduta badaude, nahiz eta horien kudeaketa, dela inbertsio lanetan dela artapen lanetan, organismo autonomoek egin.

Nekazal ustiapenei dagozkien obra lizentziak, ondoren ezarritakoaren arabera zuzenduko dira:

Ordainketatik salbuetsirik daude, erabateko dedikaziodun nekazal ustiapenen titularrei emandako lizentziak, lizentziaren titularrak ondoko baldintzak betetzen baditu:

A)

1.- Ustiapenaren arduera osoa jabeak eta familiak izatea.

2.- Ustiapenaren jabeak soilik nekazaritzan jardutea eta erabateko dedikazioan. Eta jarduera hau turismo eta artisautza jarduerekin osatu ahal da.

3.- Nekazal Gizarte Segurantzako Errejimen berezian alta emana egotea, nork bere kontura.

4.- Jabeak 65 urte baino gutxiago izatea eta inolako pentsiorik ez jasotzea. Nolanahi ere, 65 urte baino gehigoko jabeak, Nekazal Gizarte Segurantzaz gain inolako pentsiorik jasotzen ez dutenak, tasa eta obra lizentzien zerga ordaintzetik salbuetsirik daude, baserrien hobekuntza obrak jatorrizko egitura errespetatuz egiten diren kasuetan.

Halaber, ordaintzetik salbuetsirik geldituko dira, gaur egun dauden baserrien berrikuntza lanak, beti ere obraren aurrekontuak 36.060,72 euro gainditzen ez baditu eta baserriaren jatorrizko arkitektura errespetatzen bada, honen erabilera edozein dela ere.

B)

Zerga honetatik kanpo geratzen dira:

-Etxeen fatxada eta/edo teilatuen garbitze, pintatze eta konpontze lanak, jadanik eraikitako etxebizitzetan.



Azpeitiko Udala

-Azpeitiko Udalaren partehartzea duen Azpeitia Berritzen, S.A.k egindako eraikuntza, obra edo instalazioak.

5 bis Artikulua

Hobariak

A) Zergaren kuotaren %50eko beherapena izango dute dedikazio mistodun nekazal ustiapenek. Jabea bera eta bere familia izan beharko dira ustiapen lanez arduratzen direnak.

Hobaria edo salbuespena lortzeko nekazal ustiapenen titularrak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Foru Ogasunak emandako nekazaritza-ustiategiaren errolda eta bere datu ekonomikoak.
- Obra baimenaren titularraren PFEZ aitortpena.
- Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Errejimen Berezia alta emana dagoenaren agiria (badagokio).

B) Interes bereziko edo udal erabilerarako izendatutako eraikuntza, instalazio eta obretan, eta izendapen hau arrazoi sozial, kultural, historiko-artistiko edo enplegua sustatzeko egokiak izateagatik dutenek, zergaren kuotaren %95eko hobaria izango dute.

C) %90eko hobaria izango dute, eraikuntza, instalazio edo obrek, pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

D) Zerga kuotaren %95eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatuko bada, sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak eduki behar dituzte.

Hobari hau ondorengo balizko egoeran baino ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean edota araudiak eskatutakoa gainditzen duen zatian.

Hobaria, eguzki energia aprobetxatzeko sistemak gehitzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean soilik aplikatuko da.

Edonola ere, hobari honen ezarpena, instalazioaren mantenu kontratuaren edota instalazioak funtzionatzen hasteko administrazioaren baimena aurkeztearen menpe egongo da.

III. Subjektu pasiboak

6. Artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikulua 3. apartatua aipatzen dituen entitateak. Eta testamentu-ahalorea erabili gabe duten herentziak, betiere eraikuntza, instalazio edo obren jabe badira, haiek egiten diren ondasun higiezinaren jabeak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren gastu edo kostuak zeinek jasaten dituen, hura hartuko da haien jabetzat.



7. Artikulua

Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordezeko subjektu pasibotzat hartuko dira lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukizuneko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa exiji diezaioke ordezekoak zergadunari.

IV. Zerga-oinarria

8. Artikulua

1.- Zergaren zerga-oinarria, eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostua izango da.

2.- Aurreko puntuan xedatutakoaren arabera, kontuan hartuko da interesatuek aurkeztutako material aurrekontua, beti ere dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia bada, eta Udal honetako zerbitzu teknikoek adostu badute.

3.- Aurreko atalean ezarritako ezaugarriak aurrekonturik aurkezten ez bada, eta baldin eta lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio eta obrak badira, udal teknikariak izango dira zerga-oinarria ezarriko dutenak, proiektuaren zenbatekoaren arabera.

V. Zerga kuota

9. Artikulua

Zerga honen kuota, zerga-oinarria Eranskinean adierazten den karga tasa aplikatzearen emaitza izango da

VI. Sortzapena

10. Artikulua

Eraikuntza, instalazio edo obra hasteko unean bertan sortuko da zerga, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

VII. Kudeaketa

11. Artikulua

Aginduzko lizentzia ematerakoan behin-behineko likidazioa egingo da eta zerga-oinarria interesatuek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, beti ere, aurrekontu hori dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia bada, edo horrela izan ezean, udal teknikariek proiektuaren kostu zenbatetsiaren arabera zehaztuko dute zerga-oinarria.

12. Artikulua

Dagokion lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatuko balitz, behin-behineko likidazio berri bat egiteko beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da eta honetan hasierako aurrekontua zenbaten garestitu den zehaztuko da.



13. Artikulua

1.- Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren azken kostu erreala kontuan izanda, Udal Administrazioak, dagokion administrazio egiaztapena eginda, kasuan kasu aldatu egingo du aurreko atalean aipatzen den zerga-oinarria eta, ondorioz, dagokion behin-betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatu edo, hala gertatuz gero, itzuli egingo dio.

2.- Aurreko atalean ezarritakoaren arabera, obra bukatu edo berau behin-behinerako hartzen deneko hurrengo lehen hilabetearen barruan, gorabehera honen aitorpena aurkeztuko da Udal Administrazioak emango duen inprimakian. Inprimaki honi obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria erantsiko zaio, dagokion profesionalen elkargoak ikuskatua, eta bertan egiaztatu beharko da obren kostu osoa, proiektu eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria onura eta obren ondorioz egon daitezkeen beste batzuk barne.

14. Artikulua

Zergaren likidaziorako, administrazioaren isiltasun positiboa aplikatuz emandako lizentziek espreski emandako lizentzien balio bera edukiko dute.

15. Artikulua

Ordenantza honetan araututako Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez eta zerga urraketen kalifikazioa eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenak erabakitzearen inguruan, Zergari buruzko Foru Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikagarri.

16. Artikulua

Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez egitea erabakiko balu eta idatzi bidez hala adierazi, eginiko behin-behineko likidazioa itzuli edo bertan behera utziko du Udalak.

17. Artikulua

Lizentzia iraungi ondoren, egindako likidazioa itzuli edo bertan behera utziko du Udalak, titularrak berritzea eskatu eta udalak baimentzen badu.

VIII. Azken xedapena

Ordenantza hau, bere eranskinarekin, behin betiko onartu zen hemen adierazten diren datetan eta 2026ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko da eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartu arte.

Eranskina

Tarifa	Karga tasa %
- Merkataritza-jardueretako lokalak eraberritzeko edo moldatzeko obrak abenduaren 26ko 12/2012 Legearen eranskinean izendatzen diren jardueretarako, beti ere gehienez 500 m ² -ko azalera dutenentzako	1,25
- Gainontzeko eraikuntza, instalazio eta obra	5



Azpeitiko Udala

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga Arautzen duen Ordenantza Fiskala, eranskin honetako edukinak diren portzentaien Taula eta tarifak beronen zati osagarri direnak, behin betiko onartu zen adierazitako 1989ko urriaren 2ko Udalbatza erabakian, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

Dagozkion aldaketak, eranskina barne, behin betiko onartuak gelditu ziren, 1990eko urriaren 4ean, 1995ko urriaren 5ean, 1996ko urriaren 24an, 1997ko urriaren 14ean, 1998ko urriaren 22an, 1999ko urriaren 22an, 2000ko urriaren 25ean, 2001eko urriaren 11n, 2005eko urriaren 6an, 2012ko azaroaren 6an, 2014ko urriaren 7an, 2015eko urriaren 6ko, 2016ko urriaren 4a, 2018ko urriaren 2ko, 2019ko urriaren 15eko eta 2022ko urriaren 4ko Udalbatza erabakietan, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



6. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea

I. Xedapen orokorrak

1. Artikulua

Toki Erakunde honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, uztailearen 5eko F.A. 11/1989 Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren atal osagarri dira.

2. Artikulua

Ordenantza hau toki erakundearen lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. Zergapeko egitatea

3. Artikulua

Toki Administrazioaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergapeko egitatea, dela eskatu delako, dela norbanakoen egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka eragindakoa delako.

III. Subjektu pasiboa

4. Artikulua

1.- Honako hauek izango dira, zergadun gisa, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo arduerengatik ezarritako tasetan higiezin horien jabeak. Hauek, hala dagokienean, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraiste zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren aseguru-entitate edo elkarteak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: etxegileak edo kontratistak.

5. Artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:



- Norbanakoen eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) Norbanakoek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. Artikulua

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

7. Artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. Zerga oinarria

8. Artikulua

Zerga-oinaria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. Kuota

9. Artikulua

1.- Zerga kuota, Eranskinean ezarritakoaren arabera, honako hau izango da: tarifa bat ezartzetik lortutako kopurua, aurretik erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz lortutako kopurua da.

VII. Sortzapena eta zergaaldia

10. Artikulua

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. Likidazioa eta ordainketa

11. Artikulua

Toki Administrazioak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. Tasen kudeaketa

12. Artikulua



Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urratzeak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzean, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. Amaierako xedapena

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean.

ERANSKINA

1.Udal igerileku eta kiroldegiaren zerbitzua

1. Tarifa. Kiroldegi eta igerilekuko instalazioen bazkideentzat

Urteko abonua	Ordainketa bakarra	Hileroko kuota
Familia abonua	361,80	30,15
Banakako abonua, adingabeak	146,88	12,24
Banakako abonua, adin nagusiak	232,68	19,39

Udako abonua (kanpoko igerilekuko denboraldirako)	Ordainketa bakarra
Familia abonua	241,30
Banakako abonua, adingabeak	97,70
Banakako abonua, adin nagusiak	143,75

Hiruhileko abonua	Ordainketa bakarra
Familia abonua	180,97
Banakako abonua, adingabeak	73,61
Banakako abonua, adin nagusiak	107,84

Alta berrien matrikula	23,00
Txartel berria galdu, hondatu edo lapurtzeagatik	5,80

1.1. Abonuen ezaugarriak

1.1.1. Urteko abonua

- Kontratatzeko den hilabetetik urte amaierara arte egongo da indarrean eta ezingo da baja eman. Baja emateko arrazoi bakarrak honakoak izango dira: zendu izana,



Azpeitiko Udala

sendagileak urte osoan kirolak ezin dela egin adieraztea eta bizilekua beste herri batera aldatzea. Horretarako, beharrezkoa da bajaren arrazoi hauek justifikatzea.

- **Ordaintzeko erak:**

- 1. Hileroko kuota baten bitartez

- 2. Ordainketa bakarra

- 3. Ezer adierazten ez den kasuetan, kuota hilabetero ordainduko dira.

- **Urteko abonua automatikoki berrituko da**, baja eman ezean. Horretarako, baja orria beteta aurkeztu beharko da. Urte bakoitzaren amaieran abonuan baja emateko epea irekiko da, abenduan. Data hori gutxi gora beherakoa da eta urtero argitaratuko da epe hori.

- **Familia abonua:** Familia-unitatea, urtarrilaren 1ean etxe berean erroldatuta daudenak, diru-iturririk gabe eta familigunean dirauten 30 urtez azpiko seme-alabak barne.

1.1.2. Hiruhilabeteko abonua

- Hiru hilabeteko abonua aukera ematen du kirol instalazioetara mugarik gabe sartzeko hiru hilabetez jarraian. Abonuaren indarraldia kontratatzen den egunean hasten da, eta hiru hilabete geroago amaitzen da, egun hori barne.

- **Ordaintzeko erak:** ordainketa bakarra

1.1.3. Udako abonua

- Udako abonua aukera ematen du kirol instalazioetara mugarik gabe sartzeko kanpoko igerilekuaren denboraldian. Abonuaren indarraldia kanpoko igerilekuaren irekierarekin hasten da eta itxierarekin amaitu.

- **Ordaintzeko erak:** ordainketa bakarra

1.1.4. Federatuak:

- Udal Kirol instalazioak erabiltzen dituzten Azpeitiko kirol taldeetako kide izan eta bazkide ez direnek 115,50 € ordaindu beharko dituzte entrenamenduetan eta partiduetako kirol instalakuntzen erabileragatik urteko kuota bezala eta ezingo dute gainontzeko instalazioak erabili.

- **Salbuespenak:** Aipatu kuota ez dute ordaindu beharko:

- Azpeitiko kirol taldeetako kide izan eta Azkoitiko Kirol Fundazioko edo Zestoako kirol instalazioetako bazkidea dena.

- Teknikakzio eskoletako haurrak. (12 urte artekoak)



- Eskola kiroleko haurrak

1.2. Hobariak

1.2.1. Hobari motak:

a) Familiko abonuetan, diru sarreren arabera hobariak edo deskontuak egingo dira, familiko kide guztien diru sarrerak kontuan hartuta. %25eko hobia:

Familia kide kopurua	Urteko diru sarrera gordinen kopurua (gehienez) (€)
2	24.500,00
3	30.500,00
4	36.500,00
5	40.500,00
6	44.000,00
7	47.000,00
8	50.000,00
+1	3.500,00

* Banandutako bikoteek, seme-alabarik badute elkarrekin, hauek gurasoetako bietako edonoren familiako abonuan sartzeko aukera izango dute, zaintza banatuta izan arren.

b) Erretirodunek (65 urte edo gehiagokoak):

- %25 hobia banakako abonuetan
- %25 hobia Familia-abonuetan, bi ezkontideek izan behar dute 65 urte edo gehiagokoak edo baita ere bat erretiroduna ez izan eta Gizarte Segurantzaren alta eman gabe badago.

c) Pentsiodunek:

- %25eko hobia, erabateko ezintasun iraunkorra dutenek.
- Familia-abonuetan, ezkontideetako inork ezingo du Gizarte Segurantzaren alta emanda egon.

d) Desgaitasuna duten pertsonak:

- %25eko hobia %65etik gorako minusbalotasuna dutenek



- %10eko hobaria %33 eta %65 bitarteko minusbaliotasuna dutenek
- Familia abonuetan ere aplikatuko da hobaria.

e) Langabeek:

- %35eko hobaria Famili abonuetan, bi bikotekideek egon beharko dute langabezia.
- %35eko hobaria banakako abonuetan.

f) Lanbide arteko oinarritzko soldata baino errenta baxuagoa dutenek:

- %35eko hobaria banakako abonuetan.

1.2.2. Hobariak aurkezteko epea:

a) Eskaera berria: izen emate berri bat egiten denean hobaria aplikatzeko dokumentazioa aurkezteko aukera egongo da.

b) Abonuaren murrizketa berritzea: Urte bakoitzaren amaieran hurrengo urterako abonuetan hobariak jasotzeko dokumentazioa aurkezteko epea irekiko da, abenduan. Data hori gutxi gora beherakoa da eta urtero argitaratuko da epe hori.

Hala ere, baldintzak aldatu eta urtean zehar hobariaren bat jasotzeko egoeran daudenek, dokumentazioa aurkeztuz gero, hobaria jasotzeko aukera izango dute, dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo hilabetetik hasita.

Horrez gain, sei hilabetero ofizioz hobarien baldintzak betetzen diren ala ez ziurtatuko da.

c) Erretirodunei, 65 urte bete eta hurrengo hilabetetik aurrera, zuzenean aplikatuko zaie hobaria.

2. Tarifa. Eguneroko ordainkizuna, bazkideak ez direnek instalazioetara sarbidea izateko.

Eguneko sarrera	€
Adin nagusiak	7,60
Adingabeak	5,80
Langabe eta jubilatuak	5,80
Dutxatzeko tasa	3,20
Taldeetako pertsona bakoitzaren sarrera (15 lagunetik gorako taldeak)	4,20

3. Tarifa. Bonoak.

10 sarrerako bonoak	€
Adin nagusiak	65,60



Adingabeak	49,40
Langabe eta jubilatua*	43,00

*Ikasleak eta aldi berean langileak direnak, gutxieneko soldatatik gora jasotzen badute, adin nagusikoen tarifa izango dute.

1 eta 2 tarifentzat oharra:

Instalazioak erabiltzeko eskubidea ematen du karnetak zein eguneroko kuotak, 4. tarifiari zehazten diren haiek salbu.

4. Tarifa. Ikastaroak.

Ikastaroak, hileko prezioak	Bazkideak	Ez bazkideak
Aretoko jarduerak, astean saio 1	19,85	34,72
Aretoko jarduera bereziak, astean saio 1	24,83	43,77
Aretoko jarduerak, astean 2 saio	39,69	69,44
Aretoko jarduera bereziak, astean 2 saio	49,59	86,80
Helduen uretako jarduerak, astean saio 1	24,83	43,77
Helduen uretako jarduerak, astean 2 saio	49,59	86,80
Jarduera fisiko egokitua, astean 2 saio	22,31	37,88

Ikastaroak, hiruhileko prezioak	Bazkideak	Ez bazkideak
Haurtxo txikien uretako ikastaroak, astean saio 1	63,24	112,48
Haurtxoen uretako ikastaroak, astean 2 saio	126,48	224,95
Haurren uretako ikastaroak, astean saio 1	63,24	112,48
Haurren uretako ikastaroak, astean 2 saio	126,48	224,95
Behar bereziak dituzten haurren igeriketa ikastaroa, astean saio 1	63,24	112,48

Ikastaro trinkoak	Bazkideak	Ez bazkideak
Haurren uretako ikastaroak, 15 egun	87,79	153,64

Bestelako programa edo ikastaroak

Gazte Kirol programa	Tarifa	
Hileko prezioa	15,00	
Ikastaroak, ikasturtean zehar	Bazkideak	Ez bazkideak
Ikasturtean zehar, prezioa euro orduko	4,62	7,51
Ikastaro bereziak, trinkoak	Bazkideak	Ez bazkideak
Aste bat	23,10	40,43
Bi aste	46,20	63,53



Baigerako bazkideen ikastaroak

Baigerako bazkideen ikastaroak	26,00
---------------------------------------	-------

5. Tarifa. Alokairuak (€/ordu).

	<u>Argirik gabe ordua</u>	<u>Argiarekin ordua</u>
Igerilekua		
Igerilekuko kale 1	33,60	33,60
Gelak	33,60	33,60
Kiroldegia		
Pista 1/3	23,10	30,45
Pista2/3	24,70	35,20
Pista osoa	26,25	39,90
Squash, mahai tenisa	Dohainik	7,35
Tenis, padel	Dohainik	7,35
Kiroldegi ondoko instalakuntzak		
Belar artifizialeko futbol zelai erdia	26,25	37,80
Belar artifizialeko futbol zelai osoa	42,00	65,10
Frontoiak		
Txikuri frontoia	Dohainik	7,35
Betharram frontoia	Dohainik	7,35
Izarraitz pilotalekua	26,25	33,60

5.1. Abonatuak ez direnek, gainera, dagokion eguneko sarrera ordaindu beharko dute instalazioetan sartzeagatik

5.2. **Salbuespenak:** Azpeitiko kirol klubek eta ikastetxeek, beraien ohiko jarduera bada, ez dute erreserba tarifa ordaindu beharrik izango.

6. Tarifa. Kirolez kanpoko erabilerak (€/orduko)

	Lanegunetan	Larunbat, igande eta jaiegunetan
Igerilekuko gelak	47,25	63,00
Kiroldegia	94,50	126,00
Izarraitz Frontoia	97,65	131,25



7. Tarifa. Ez ohiko gastuak (€/orduko)

	Tarifa
Kiroldegiko harrerako aparteko orduak	28,80
Igerilekuko harrerako aparteko orduak	26,28
Sorosleen aparteko orduak	30,01
Garbiketa aparteko orduak	24,60

2.- Hiri hondakin solidoak bildu, tratatatu eta deusezte

2.1.- Hiri hondakin solidoak biltzea.

Tarifak ezartzeko, abonatuak ondoren zehazten diren mailetan, taldeetan eta azpitaldeetan sailkatuko dira:

Maila	Talde orokorra	Azpitaldea
1.	10 Etxebizitzak, bizileku partikularrak, jendea bizi edo ez eta jarduerarik gabeko lokalak	101
2.	20 Biltegiak	
	Biltegi orokorrak	200
	Olio biltegiak	201
	Edari biltegiak	202
	Kolonialen biltegiak	203
	Pentsu biltegiak.....	204
	Paper eta pintura biltegiak.....	205
	Industria produktuen biltegiak.....	206
	Egur biltegiak	207
	Burni biltegiak	208
	Olio, edari eta janari biltegiak, ostalaritza hornitzeko	209
	21 Merkataritza	
	Jantzi-denda	210
	Boutiqueak eta jantzigintza dendak.....	211
	Artilezko gaien dendak.....	212
	Mertzeriak	213
	Moda dendak	214
	Ehunezko gaien dendak	215
	Tindategi eta lakadurak.....	216
	Oinetako dendak.....	217
	Aterki eta kapela dendak.....	218
	22/23 Merkataritza	
	Luxuzko artikuluen dendak.....	219



Armagintza, ehiza eta arrantza gaien dendak	220
Kirol dendak	221
Drogeria, belar denda eta parafarmaziak	222
Bitxi-dendak	223
Jostailu-dendak	224
Liburu-dendak	225
Ileapaindegi eta apaindegiak	226
Lurrin-dendak	227
Opari-dendak	228
Erloju-dendak	229
Optikak eta ortopedia dendak	230
Lora dendak	231
24 Etxebizitzak egokitzeko gaien merkataritza	
Elektrizitatea	240
Etxetresna elektrikoak	241
Burindegi eta brikolaje gaiak	242
Altzariak	243
Paper eta pinturak	244
Saneamendu gaiak	245
Aparatu informatikoak	246
Eraikuntza materialak	247
Dekoratzaileak	248
25 Kontsumo gaien merkataritza	
Ikaztegiak	250
Tabako-dendak	251
Botikak	252
Okindegiak	253
Egunkari eta aldizkariak	254
Kinielak	255
26/27 Lanbide jardueren lokalak	
Abokatuak	260
Arkitektu eta ikerketa bulegoak	261
Dentistak	262
Botikak	263
Argazki dendak	264
Aholkularitza eta autoeskolak	265
Apaindegiak	266
Inprentak	267
Mediku, fisioterapeuta eta antzerako osasun langileak	268
Notarioak	269
Bulegoak eta sindikatuak	270
Tatuatzaileak	271
Artisautza	272
28 Zerbitzu lokalak	
Eskolak, Ikastetxeak, ikastolak, haurtzaindegiak eta bestelako irakaskuntza zentruak	280
Eliza, kapera eta gurtza lekuak	281
Eraikuntza publikoak: Udaletxea, azoka, hiltegia	282
Liburutegiak, kultur gelak, erakusketa aretoak, kirol taldeak	283



Polikiroldegiak, igeri lekuak, kirol guneak, futbol zelaiak, zezen plazak	284
Zahar etxea, Zaharren egoitza	285

3. Hostalaritza

30/31 Elikadura

Hegazti eta arraultzak	300
Gozokiak	301
Harategiak	302
Kolonialak	303
Gozo-dendak	304
Ekonomatuak	305
Fruta dendak	306
Pastel dendak	307
Arraindegiak	308
Supermerkatuak	309
Janari-dendak	310

32 Ostatu

Apopilo etxeak	320
Ostatuak	321
Hostalak	322
Hotelak	323
Pentsioak	324
Egoitzak	325

33 Edariak

Tabernak	330
Upategiak	331
Kafetegiak	332
Klubak	333
Pub-ak	334
Snack-bar-ak	335
Tabernak	336
Ardandegiak	337

34 Jatekoak

Askaldegiak	340
Jatetxe, self-serviceak	341
Elkarteak	342

35 Zerbitzuak

Bidaia ajentziak	350
Bankuak	351
Aurrezki kutxak	352
Aseguru etxeak	353
Posta, telefonoak, epaitegia	354

4. Industria jarduerak eta zerbitzuak

• **Mekanikoak**

Arostegiak, zerrategiak, altzari lantegiak, e.a.	400
Errementeriak, galdarategiak	401
Soldatze lanak	402
Haizatze lanak	403



Azpeitiko Udala

Lantegi eta industriak orokorrean	404
Trokelgintza, moldeak, matrizeak	405
Autoen konponketak	406
• Aisialdikoak	
Zinemalekuak.....	410
Dantzalekuak	411
Jolas aretoak.....	412
Antzokiak	413
• Zerbitzuak	
Garajeak negozio gisa	420
Ibilgailuen konponketak.....	421
Industriarako hornidurak.....	422
Garraio agentziak.....	423
5. Aurretik hitzartutako zerbitzuak	500
Klinikak	501
Ospitaleak.....	502

Tasa hiruhilero kobratuko da eta hiruhileroko tasak, maila eta langile kopuruaren arabera, ondorengo hauek dira.

Tarifak:

	€
<u>1. maila:</u>	
Etxebizitzak	41,66
Ur kontagailua prezintaturik duten jarduerarik gabeko lokalak	41,66
Ur kontagailua prezintatu gabe duten jarduerarik gabeko lokalak:	
- Lokalaren azalera 299,99 m ² artekoa bada	87,50
- Lokalaren azalera 300,00 m ² tik 499,99 m ² artekoa bada	291,08
- Lokalaren azalera 499,99 m ² baino haundiagoa bada	725,56
<u>2. maila:</u>	
5 langile	130,55
15 langile	303,37
15 langiletik gora	416,07
<u>3. maila:</u>	
5 langile	174,08
15 langile	349,26
15 langiletik gora	521,14



<u>4. maila:</u>	
15 langile	391,64
50 langile	521,14
100 langile	652,71
500 langile	867,01
500 langiletik gora	1.040,59
<u>5. maila:</u>	
Bestelakoak	312,75

Tasa hauek ezartzeko ondorengo hauek izango dira kontuan:

a) Industria Jarduerak.

2 pertsona baino gehiago ez dituzten 4.mailako lehen taldeko industria txikiak, 2.mailako lehen taldekoekin parekatuko dira.

- Norbere jabetzako garajetarako lokalak (5 ibilgailu arte), trastelekuak eta lokal hutsak

Hiri hondakin solidoen sailkapeneko 1.mailako zergaduntzat hartuko dira.

c) Beste erabilera batzuetarako lokalak

Zergaduntzat hartuko dira industria eta merkataritza jarduerak lokalean bertan burutzen dituztenak, eta garajea merkataritza jardueretarako erabiltzen dutenak, bai eta, jarduera hauek guztiak lokaletik bertatik egiten dituztenak ere. Eta ez da zergaduntzat hartuko, lokala biltegi gisa erabiltzen duena, baldin eta hau jarduera bat aurrera eramateko tresneria gordetzeko soilik bada, beti ere, jarduera udalerrian bertan beste lokal batean burutzen badu, dagozkion zergak ordainduta:

1. Etxepeko sotoak, 2.1 mailan daude sailkatuta.
2. Merkataritzan aritzeko garaje gisa erabiltzen diren behe-solairuak, 2.1 mailan daude sailkatuta.

d) Aisialdiko Elkarteak

Ondorengo parekatzeak izango dituzte:

1. 40 bazkide baino gutxiagokoek, 3. Maila 1-ean sailkatuko dira.
2. 40 bazkide baino gehiagokoek, 3. Maila 2-an sailkatuko dira.

e) Etxebizitza tarifa ordaintzen duten abonatuak % 25eko hobaria aplikatuko zaie autokonpostea egiteagatik. Urteko lehen bi hiruhilekoetan hobari honen onuradun izateko aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago dagokion zerrendan alta emanda egon beharko dute. Urteko azken 2 hiruhilekoetan hobari honen onuradun izateko ekainaren 30 baino lehenago egon beharko dute alta emanda dagokion zerrendan.



f) Zaborrontziak irekitzeko beharrezko lehenbiziko txartela, etxebizitza/lokaleko dohainik izango da eta gehiago behar diren kasuetan, txartel bakoitzeko 3,00 euro ordainduko dira.

3. Udal hilerriko zerbitzua, gorpuak eramatea eta bestelakoak

Tarifak

	€
<u>1. Hilkutxarekin hilobiratzea</u>	
a. Lurrean	384,42
b. Panteoian	329,52
c. Nitxoan	274,57
<u>2. Errautsak hilobiratzea</u>	219,68
<u>3. Garbiketak</u>	
a. Panteoia	
- Gorpuzkin 1	164,73
- 2 Gorpuzkin	274,57
- 3tik 6ra gorpuzkin	384,42
- 6 gorpuzkinetik gora	549,20
b. Nitxoa	131,79
<u>4. Lagapenak</u>	
a. Nitxo lagapena	
- 75 urterako, kuota bakarra	3.898,31
- 12 urterako, kuota bakarra	779,81
- 12 urterako, urtero ordiantzea nahi bada urteko kuota	86,60
b. Hezurtegia	
- 75 urterako, kuota bakarra	650,01

4. Alderdi batek eskatuta, udal administrazioak edo agintariek luzatu edo bere gain hartzen dituzten agiriak

	€
- Lehen idazpurukoa. Espedienteen kopiak eta fotokopiak	
1. Din A4 orriko kopia bakoitza	0,10



2. Din A3 orriko kopia bakoitza	0,20
3. Din A2 orriko kopia bakoitza	1,45
4. Din A1 orriko kopia bakoitza	2,05
5. Planoen paper linealeko kopia bakoitza	3,25
Eskatzaileak koadernoratzea nahi balu 3 euro ordainduko ditu.	
- Bigarren idazpurukoa. Informazioa CD Rom eta disketteetan ematea	
1. Plan orokorrak	77,95
2. Gainontzeko informazioa	5,30
3. Artxibo historikoa	
- Digitalizatutako kopiak (kopia bakoitza)	1,00
- CD Rom-ean ematea	2,80

Eskatzailearen kontura izango dira hirigintza plangintzak argitaratzeak sortzen dituen gastuak, testuen itzultzeak barne.

Planoen koloretako kopiak eta udaletxetik kanpo egin beharreko gainerantzeko kopiak, beren kostuaren arabera kobratuko dira.

Ikasle eta langabetuek eginiko espedienteen kopien eskaerek, ikasketa edo ikerketa badute helburu, aurrez azaldutako tarifetan, %50eko hobaria izango dute.

5. Lurzoruari eta hiri antokaletari gaineko legeek eskatutako hirigintza lizentziak ematea

Zergapeko egitatea Udal jardueraren arabera izango da. Jarduera hauek ziurtatuko dute egiten diren Instalazio, eraikuntza eta obrak eraikuntza eta zaintza arloko Hirigintza Araudiarekin bat daudela, indarrean dagoen urbanizazio antolamenduen planetara egokitzen direla, aurreikusitako erabileretarako direla, paisajearen harmoniari eta itxurari ez dietela erasotzen, segurtasun, osasungarritasun, garbitasun eta saneamendu neurriak betetzen dituztela, eta azkenik, arte, historia edo monumentu interesengatiko debekurik ez dagoela.

	€
- 3.005,06 € baino gutxiagoko aurrekontudun instalazio, eraikin eta lanengatik	29,79
- 3.005,06 € eta 15.000,01 € bitarteko aurrekontudun instalazio, eraikin eta lanengatik	59,57
- 15.000,01 € eta 60.101,21€ bitarteko aurrekontudun instalazio, eraikin eta lanengatik	298,02
- 60.101,21€ eta 120.202,41€ bitarteko aurrekontudun instalazio, eraikin eta lanengatik	596,00



- 120.202,41€ eta 721.214,51€ bitarteko aurrekontudun instalazio, eraikin eta lanengatik	4.024,30
- 721.214,51€ eta 3.005.060,51€ bitarteko aurrekontudun instalazio, eraikin eta lanengatik	8.048,65
- 3.005.060,51€tik gorako aurrekontudun instalazio, eraikin eta lanengatik	12.067,11
-Eraikuntzen estreinako erabilera eta okupazioa, etxebizitzako	23,93
-Zati-egitamu berezi, Xehetasun-azterlan, Hirigintza-lanen egitasmoak	4.292,87
-Birzatatze egitasmoak, berdinketak	3.339,02
-Bestelakoak	596,33

6. Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea eta jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egitea

Ordainarazpen honen ondorioetarako, irekitze gisa ondorengoak hartuko dira:

- Aurreneko aldiz irekitako establezimenduak.
- Lokalen lekualdatzeak.
- Eskualdatzeak eta titularren aldaketak, bertan egiten den jarduerak aldatu gabe.
- Lokaletan burutzen diren jarduerak aldatu edo handitzeak, nahiz eta titular berak jarraitu.

Tarifak

1. Bai aldez aurretik baimendu beharreko jardueretan, jarduera baimena emateagatik, bai aldez aurretik komunikatu beharreko jardueretan, jarduera eta instalazioen funtzionamenduaren egiaztapen eta ikuskapenak egiteagatik., tarifak honakoak izango dira:

	€
a. 50 m ² baino gutxiagoko establezimenduak	379,53
b. 51 eta 150 m ² arteko establezimenduak	759,09
c. 151 eta 500 m ² arteko establezimenduak	1.498,20
d. 500 m ² -tik gorako establezimenduak	2.996,31
e. Banketxeak eta Aurrezki kutxak	3.248,07
f. Tabernak eta jatetxeak	1.598,05

2. Lekualdatze, Eskualdatze eta titularitate aldaketetan, aurreko tarifak % 50 murriztuko dira.

3. Eranskin honetan jasotako tarifak, % 50 igoko dira Jarduera Gogaikarri, Osasaungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduan aurrikusitako espedientea bideratu aurretik emandako lizentzien kasuetan.



4. Nekazal ustiapenek eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergen hobarietakoren bat jasotzen duten nekazaritzarako dedikazio mistoa duten kasuetan, tasa honetan hobari bera jasoko dute.

5. Aldez aurretik komunikatu beharreko jardueretan, aurretiazko komunikazioa aurkezterakoan tasa honen ordainketa egina dagoen agiria aurkeztu beharko da.

7. Autotaxien eta alokairuko gainerako ibilgailuen lizentziak edo baimenak ematea

Tarifak

	€
Taxiei emandako baimen berri bakoitzeko	1.433,17
Ibilgailu-aldatze baimenagatik	35,06
Lizentzia-eskualdatzearen baimenagatik	2.006,65

8. Gizarte zerbitzuetako tasak

a. Etxez etxeko laguntza zerbitzua, eguna, gaua eta gizarte-laguntza integrala

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kostua 15,00 €-koa izango da astegunetan (astelehenetik ostiralera), eta 18,00 €-koa larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan.

Hala ere, etxez etxeko zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharreko kuota aldatu egingo da erabiltzailearen mendekotasun- eta desgaitasun-mailaren eta familia-unitatearen diru-sarreraren arabera.

1. Erabiltzailearen mendekotasun- eta desgaitasun-maila:

a.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileek, MBB balorazio-eskalan % 75eko edo gehiagoko mendetasun-maila badute, zerbitzuaren eguneko lehen orduagatik (hau da, astean 5 ordu (astelehenetik ostiralera) 36,77 euroko hileko kuota ordaindu beharko dute, 42,02 euroko hileko kuota larunbatean zerbitzua ordubetez igotzen bada, eta 47,28 euroko hileko kuota igandean zerbitzua ordubetez handitzen bada.

b.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileak, MBB balorazio-eskalan % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila badute:

1. Egunean 30 minutuko zerbitzua edo astean 2 ordu eta 30 minutukoa jasotzen dutenek hilean 21,01 €-ko kuota ordaindu beharko dute, 26,27 €-ko hileko kuota larunbatean zerbitzua ordubetez igotzen bada, eta 31,52 €-ko hileko kuota igandean zerbitzua ordubetez handitzen bada.

2. Zerbitzua egunean 30 minutu eta 45 minutu bitartean edo astean 2 ordu eta erdi eta 3 ordu eta 45 minutu bitartean jasotzen badute, hilean 31,52 €-ko kuota ordaindu beharko dute, hilean 36,77 €-ko kuota, larunbatean zerbitzua ordubetez



Azpeitiko Udala

handitzen bada, eta hilean 42,02 €-ko kuota, igandean zerbitzua ordubetez handitzen bada.

c.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua erabiltzen duten pertsonak, MBB balorazio-eskalan % 33ko edo gehiagoko mendetasun-maila badute, zerbitzuaren lehen ordu laurdenagatik edo zerbitzuaren astean ordubete eta 15 minutu emateagatik 21,01 euroko hileko kuota ordaindu beharko dute, 26,27 euroko hileko kuota larunbatean zerbitzua ordu betez igotzen bada, eta 31,52 euroko hileko kuota igandean zerbitzua ordu betez handitzen bada.

Emandako zerbitzuak a-b-c kasu bakoitzean adierazitako denbora gainditzen badu, gainerako erabiltzaileentzat ezarritako tarifen arabera ordainduko da.

Hala ere, persona guztiek, beren diru-sarrerak alde batera utzita, gutxienez honako kuota hau ordainduko dute hilean:

a) 36,77 € egunean ordubeteko zerbitzua jasotzen badute, hau da, astean 5 ordu (astelehenetik ostiralera), 42,02 €-ko hileko kuota larunbatean zerbitzua ordubetez handitzen bada, eta 47,28 € hileko kuota igandean zerbitzua ordubetez handitzen bada.

b) 21,02 €, egunean 30 minutuko zerbitzua edo astean 2 ordu eta 30 minutukoa jasotzen badute; 26,27 €-ko hileko kuota, larunbatean zerbitzua ordubetez handitzen bada; eta 31,52 €-ko hileko kuota, igandean zerbitzua ordubetez handitzen bada.

c) 31,52 eurokoa, zerbitzua egunean 30 minutu eta 45 minutu bitartean edo astean 2 ordu eta erdi eta 3 ordu eta 45 minutu bitartean jasotzen badute; 26,27 eurokoa, zerbitzua larunbatean ordubetez handitzen bada; eta 31,52 eurokoa, zerbitzua igandean ordubetez handitzen bada.

d) 15,00 € astean 2 ordu edo gutxiagoko zerbitzua jasotzen badute, 21,01 €, 26,27 € ko hileko kuota larunbatean zerbitzua ordubetez handitzen bada, eta 31,52 € hileko kuota igandean zerbitzua ordubetez handitzen bada.

2. Gizarte-kalte beratasuneko egoeran dauden erabiltzaileentzako egoera bereziak.

a) Esku-hartze psikosozialeko programan parte hartzen duten pertsonak, dagokien txosten sozialarekin.

b) Adingabeak, dagokien txosten sozialarekin.

c) Gizarte-larrialdiko egoeran dauden pertsonak, dagokien txosten sozialarekin.

Hilean 15,00 euroko ekarpen ekonomikoa astean zehar eta 18,00 euro asteburuetan.

3. Familia-unitatearen diru-sarrerak hileko diru-sarrera hori honela kalkulatu da:

- Diru-sarrerak eta urteko etekin garbiak.

- Urteko ondarearen % 20ko balioa, ohiko etxebizitza, garajea eta trastelekua izan ezik.

Familia-unitatearen diru-sarrera guztien batura 12 hilekotan zatituko da.



Azpeitiko Udala

Ondorio ekonomikoetarako, familia-unitatetzat hartzen da zerbitzuaren xede den subjektua, haren ezkontidea edo antzekoa; gainerako familia-unitatea ez da kontabilizatuko diru-sarrerak zenbatzeko.

Urterako finkatutako Lanbide arteko Gutxieneko Soldata hartuko da oinarritzat. Lortutako hileko diru-sarrerari honako ehuneko hauek aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak kenduko zaizkio LGSari, erabiltzailearen familia-unitateko kideen kopuruaren arabera.

Pertsonen kopurua	%
Persona bat	%75
Bi pertsona	%75+%35
Hiru persona edogehiago	%75+%35+%30

Ateratzen den kopurua ondoren zehazten diren baremoetako batean sartuko da.

€-tikhasita	€ arte	%
-	101,86	1
101,87	203,64	3
203,65	271,54	6
271,55	339,48	9
339,49	407,34	12
407,35	475,25	15
475,26	543,13	18
543,14	610,98	21
610,99	678,89	24
678,90	746,77	27
746,78	814,62	30
814,63	882,54	34
882,55	950,40	38
950,41	1.018,32	42
1.018,33	1.086,17	46
1.086,18	1.154,06	50
1.154,07	1.221,96	54
1.221,97	1.289,79	59
1.289,80	1.357,70	65
1.357,71	1.425,61	71
1.425,62	1.493,44	77
1.493,45	1.561,35	83
1.561,36	1.629,26	90
1.629,27	1.697,12	95
1.697,13		100



Azpeitiko Udala

Aurreko taulan ezarritako ehunekoak zerbitzuaren hileko kostuaren gainean aplikatuko dira. Kostu hori kalkulatzeko, erabiltzaileari hilean emandako zerbitzu-orduen kopurua bider ordu bakoitzeko kostua biderkatuko da, hau da, 15,00 €/ ordu astelehenetik ostiralera, eta 18,00 €/ euro larunbatetan eta igandeetan. Ateratzen den zenbatekoa erabiltzaileak ordaindu beharreko hileko kuota izango da.

Desgaitasunaren eta mendetasunaren balorazioa aitortuta duten pertsonen, erabiltzailearentzat onuragarriena den ekarpen ekonomikoaren kuota aplikatuko zaie.

b. Eguneko zentroa

Erabiltzaileek ordaindu beharreko kopuruak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzen duen ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretuan eta hau aldatzen duen 12/2016 Foru Dekretuan ezartzen denaren arabera kalkulatu dira.

c. Eguneko unitatea.

	€
Pertsonen autonomiari eusten laguntzeko zerbitzu bereziaren erabiltzaileen tasa, astean 3 aldiz	15,76
Pertsonen autonomiari eusten laguntzeko zerbitzu bereziaren erabiltzaileen tasa, astean 2 aldiz	10,51

9. Hiri trafikoa arautu eta kontrolatzeko jardura bereziak egitea, ibilgailuen zirkulazioa errazteko eta udaltzainek trafikoa seinalizatu eta antolatzeke egin ohi dituztenak izan gabe

Tarifak

9.1. Ibilgailuak kentzematik

a) Txirringa, motozikleta, triziklo, motogurdi eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuak kentzematik, bakoitzeko	32,08
b) 1.000 kilora bitarteko turismo, furgoneta, kamioneta eta gainerakoak kentzematik, ibilgailu bakoitzeko	70,57
c) 1.000 kilotik gorako kamioi, traktore, atoi, kamioneta eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuentzat, garabizalearen kontuaren arabera, egoera eta ibilgailu-mota kontuan hartuz	
Baldin ibilgailuok erretiratzen direnetik 48 ordu baino gehiago igarotzen badira euren jabe edo gidariek jasotzeke, a) tarifari hauek gordetze eta zaintzeagatik degokiona erantsiko zaio.	
Aipatutako ordain sari horien zenbatekoa honakoa izango da:	
1. Txirringa, motozikleta, triziklo, motogurdi eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailu bakoitzagatik, egunekoedo egun-zati bakoitzeko	4,77



2. Gehienez 1.000 kilotarainoko auto, furgoneta, kamioneta eta gainerakoak, ibilgailu bakoitzeko, eguneko edo egun-zati bakoitzeko	9,50
3. 1.000 kilotik gorako kamioi, traktore, atoi, kamioneta eta antzeko ezaugarriak dituzten gainerako ibilgailuentzat, eguneko edo egun-zati bakoitzeko	21,32

9.2. Ibilgailuak geldiaraztea. 19,15 €

10. Euskara arloko eta Udal euskaltegi tasak

10.1. Euskara arloko tasak

Itzulpenak

Testu mota	Epea	Tarifa orriko (€)
Testuarrunta	Arrunta	20,08
Testuarrunta	Premiazkoa	25,11
Testuteknikoa	Arrunta	26,55
Testuteknikoa	Premiazkoa	33,01
Zuzenketa	Arrunta	7,19
Zuzenketa	Premiazkoa	10,77

- Epe arrunt bezala hartuko da, lanak epe zehatzik ez duenean (hamar egun baino gehiago).
- Premiazko epe bezala hartuko da, lanak epe zehatza duenean eta lehen bait lehen egin beharrekoa denean (hamar egun baino gutxiago).
- Orrialde bakoitzean bi mila karaktere ingurus artuko dira

Aztertzaile lanak	€
Ebaluatzailelanak (orduko)	45,39
Ebaluatzailelanak (joan-etorria)	45,39
Ebaluatzailelanak (km-ko)	0,29
Ikastaroak	
Enpresei (klaseaemateaorduko)	38,17
Enpresei (klaseprestaketaorduko)	38,17
Enpresei (joan-etorriaorduko)	38,17
Enpresei (km-ko)	0,29
Aholkularitza lanak	
Hizkuntzaplangintzak (orduko)	38,17
Hizkuntzaplangintzak (joan-etorriaorduko)	38,17
Hizkuntzaplangintzak (km-ko)	0,29

- ELEGUNE zerbitzua jasotzen duten enpresak salbuetsita izango dira.

10.2. Udal euskaltegiaren tasak



Ikasturtea

Azalpena		Tarifa
Klaseorduko tasa (KOT)		1,45
Materiala	Gutxienez 8,87 € eta gehienez 27,85 € (ikastaroaren arabera)	
AUTOIKASKUNTZA	3 Hilabeteko ikastaroa (75 ordu)	150,00
	9 Hilabeteko ikastaroa (395 ordu)	395,00
Ikastaro bereziak (enpresa, ikastetxe, erakunde,...)	Klasea ematea orduko	34,53
	Klase prestaketa orduko	34,53
	Joan etorria orduko	34,53
	Km-ko	0,29

Azpeitiko Udal Euskaltegiko matrikula eta materiala ordaintzetik salbuetsita egongo dira Azpeitian erroldatuta dauden eta honako baldintzak betetzen dituzten herritarrak: langabetuak izatea, diru-sarrera bermatzeko errenta jasotzea edo horri dagokion kopurua baino diru-sarrera baxuagoak izatea, betiere, ikastaroaren betetze-maila % 85ekoa bada gutxienez (aurrez aurrekoetan, bertaratzea hartuko da kontuan; autoikaskuntzan, tutoretzetara bertaratzea eta lanak egitea)

Azpeitian erroldatuta dauden euskara ikasleek hobaria izango dute bi egoera hauetan:

2. Azpeitiko Udal Euskaltegian familia-unitate bereko kide bat baino gehiago dabiltzanean, bigarren kideak eta gainerako guztiek % 50eko hobaria izango dute matrikula ordaintzerakoan.
3. Familia-unitatearen diru-sarreraren arabera hobaria izango dute, familia-unitatearen diru-sarrera netoak familiako kideen artean zatitu eta gero, lortutako emaitza, kide bakoitzeko, indarrean dagoen lanbideen arteko gutxieneko soldataren kopurua baino tixkiagoa baldin bada. Aurreko baldintza betez gero, Azpeitiko Udal Euskaltegiko ikasleek % 50eko hobaria izango dute matrikula ordaintzeko unean.
- 4.

Bestalde, familia-unitatearen diru-sarrera netoak familiako kideen artean zatitu eta gero, emaitza, kide bakoitzeko, indarrean dagoen lanbideen arteko gutxieneko soldata baino 600 euro gehiagoren tartean baldin badago, Azpeitiko Udal Euskaltegiko ikasleek % 25eko hobaria izango dute matrikula ordaintzeko unean.

Horretaz gain, matrikula osorik edo zati bat ordaindu duten eta Azpeitian erroldatuta dauden ikasleek ordaindutako kopurua jasotzeko aukera izango dute jarraian azaltzen diren baldintza hauek betez gero.

Alde batetik, HABEren egiaztatze-deialdiren batean euskara-tituluren bat eskuratzen duten euskara-ikasleek ezinbestekoa izango dute HABEren euskara-ikasleentzako dirulangutzen deialdian eskatzea matrikulan ordaindutako diru-kopurua. HABEk dirulaguntza eman bai, baina jasotako kopuru hori matrikulan ordaindutako diru-kopurura iristen ez bada, Azpeitiko Udalak itzuliko dio matrikulan ordaindutako diru-kopuruaren eta HABEk eman dionaren arteko diferentzia, Udalean dirulaguntza-eskaera aurkeztu ondoren, baldin eta ikastaro osoaren betetze-maila % 85ekoa izan bada gutxienez.

Beste aldetik, HABEa dirulaguntzarik eskatzerik ez duten euskara-ikasleei ikastaroagatik ordaindutako matrikularen diru-kopuru osoa itzuliko zaie, Udalean dirulaguntza-eskaera aurkeztu ondoren, baldin eta ikastaro osoaren betetze-maila % 85ekoa izan bada gutxienez.



11. Txakurrak jaso eta aterpean edukitzea

Txakurra jasotzeagatik	26,06
Txakurtegian egoteagatik txakur eta eguneko	6,53

12. Ezkontza espedienteen tramitazioa

Ezkontza tasak tramitatzea, ezkontzako	54,88
--	-------

13. Azpeitiko udalaren langile izateko hautapen probetan parte hartu nahi dutenei eman beharreko zerbitzuarengatik tasa

Izangai bakoitzak	21,00
-------------------	-------

Hautapen probetan izena ematea aurkezten den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra eta eskaera ez da izapidetuko tasa ordaintzen ez den bitartean. Ordainketa, parte hartzeko deialdia zabalik dagoen epean autolikidazio bidez ordainduko da.

Tasaren ordainketa nominala izango da, indibidualizatua hautapen prozesu bakoitzeko.

Ez da bidezkoa izango inolako itzulketarik egitea, interesatuari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik hautatze probetatik kanpo gelditzen bada.

Barne sustapeneko hautapen probak ez dira zerga egitatearen barruan sartzen.

14. Udaltzaingoaren atestatu eta txostenak egiteagatik tasa

Udaltzaingoaren txosten errazen kopiak egitea	41,20
---	-------

Txosten erraztat 5 orri edo gutxiago dituztenak hartuko dira:

- Istripuei buruzko txostenak
- Zehapen-prozeduren kopiak
- Alderdi batek eskatuta eta interes partikularrerako eskatutako beste txosten batzuk

Udaltzaingoaren txosten konplexuen kopiak egitea	82,40
--	-------

Txosten konplexutzat 5 orri baino gehiago dituztenak hartuko dira:

- Istripuei buruzko txostenak
- Zehapen-prozeduren kopiak
- Alderdi batek eskatuta eta interes partikularrerako eskatutako beste txosten batzuk

15. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien lizentziak eta txartelak ematea

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea edo berritzea	84,05
Aurrekoa galdu edo hondatzeagatik arriskutsuak izan daitezkeen animalia	21,00



Azpeitiko Udala

edukitzeko lizentzia berria ematea	
Arriskutsua izan daitezkeen animalien udal erroldatzea eta txartela eskuratzea	84,05
Aurrekoa galdu edo hondatzeagatik arriskutsuak izan daitezkeen animalien txartel berria ematea	21,00

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen Ordenantza Fiskala (eranskin honetan jasotako tarifak bere zati dira) behin betiko onartu zen 1989ko urriaren 2ko Udalbatza erabakian, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

Dagozkion aldaketak, eranskina barne, behin betiko onartu ziren, 1990eko urriaren 4ean, 1991ko irailaren 25ean, 1992ko urriaren 29an, 1993ko urriaren 7an, 1994ko urriaren 17an, 1995ko urriaren 5ean, 1996ko urriaren 24ean, 1997ko urriaren 14ean, 1998ko urriaren 22an, 1999ko urriaren 22an, 2000ko urriaren 25ean, 2001eko urriaren 11n, 2002ko urriaren 16an, 2003ko urriaren 2an, 2004ko urriaren 13an, 2005eko urriaren 6an, 2006ko urriaren 5ean, 2007ko urriaren 4an, 2008ko urriaren 16an, 2009ko urriaren 22an, 2010eko azaroaren 4ean, 2011ko urriaren 21ean, 2012ko azaroaren 6an, 2013ko urriaren 16an, 2014ko azaroaren 4an, 2015eko urriaren 6ko, 2016ko urriaren 4ean, 2017ko urriaren 3an, 2018ko urriaren 2an, 2019ko urriaren 15ean, 2020ko urriaren 8an, 2021eko otsailaren 23an, 2021eko urriaren 5eko, 2022ko urriaren 4ko, 2022ko abenduaren 13ko, 2023ko maiatzaren 4ko, 2023ko urriaren 3ko, 2024ko urriaren 8ko (eta abenduaren 3ko zuzenketen) eta 2025eko urriaren 7ko Udalbatza erabakietan, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



7. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen agintaraudia

I. Xedapen orokorrak

1. Artikulua

Toki erakunde honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. Artikulua

Ordenantza hau toki erakundearen lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. Zergapeko egitatea

3. Artikulua

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren aprobetxamendu bereziak eratzen du zergapeko egitatea.

III. Subjektu pasiboa

4. Artikulua

1.- Honako hauek izango dira, zergadun gisa, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta beren onurarako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerek modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro har, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzeagatik ordaindu beharrekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienez, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Estatua, autonomia erkidegoak eta toki erakundeak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen aprobetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zerikusia duten guztietan.

5. Artikulua

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horiek izan ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak



6. Artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. Zerga oinarria

7. Artikulua

Zerga oinarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. Kuota

8. Artikulua

1.- Zerga kuota ondorengo izango da: tarifa bat ezartzetik lortutako kopurua, aurretik erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz lortutako kopurua, eranskinean ezarritakoaren arabera.

2.- Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzea dakarrenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gain, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldeztatik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalteordaina jasoko du eta honek suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kalteitutako ondasunen zenbatekoarena.

Toki erakundeak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, atal honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

VII. Sortzapena eta zergaaldia

9. Artikulua

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa ondorengo egoeretan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientearen ez da izapidatuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da eta zergaaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaaldia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, epe horren likidaziorik ez da egingo. Likidatuta balego dagokion zuzenketa egingo da eta ordainduta badago gehiegizko zenbatekoa itzuliko zaio.



VIII. Likidazioa eta ordainketa

10. Artikulua

Toki Erakundeak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. Tasen kudeaketa

11. Artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrek ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. Amaierako xedapena

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetzen ez den artean.

Eranskina

1. Udalaren herri erabilerarako terrenoak hartzea merkantzia, eraikuntza- material, obra-hondakin, hesi, puntel, asto, aldamio eta antzeko beste instalazio batzuk jartzeko

Lehenengo tarifa

Hesi eta aldamioekin edo horretarako beste edozein instalaziorekin herri-bidea hartzea, euro metro karratu edo zatiko, eta eguneko (€ m ² /egun)	0,71
---	------

Bigarren tarifa

Puntel, asto, eta beste hainbat zurkaitz-elementurekin herri-bidea hartzeagatik, euro metro karratu edo zatiko eta eguneko (€ m ² /egun)	4,93
---	------

Hirugarren tarifa

Zakar, lur, hondar, eraikuntza-material, egur, edo edozein motatako materialez herri-bidea hartzea, euro metro karratuko eta eguneko.

Lehenengo 30 egunak (€ m ² /egun)	0,85
Ondorengo egunak (€ m ² /egun)	1,61

Laugarren tarifa

Zakarrak eta eraikuntza-materialeak biltzeko metalezko edukiontziak jartzea, bakoitzeko eta eguneko.



Azpeitiko Udala

Lehengo 8 egunak (€ m ² /egun)	2,69
Ondorengo egunak (€ m ² /egun)	4,49

Espreski debekatuta dago zorua ukituaz edukinontziak ipintzea. Horregatik, derrigorrezkoa izango da zoruaren eta edukinontziaren tartean egurrezko takoak jartzea.

Bostgarren tarifa

Kalea ixtea orduko	20,94
Kale mozketa partziala orduko	13,97

Espreski debekatuta dago asteroko azoka egunetan kalea ixtea arratsaldeko 16:00ak arte

Salbuespenak:

Azpeitia Berritzen, S.A.ren eraikuntza, obra eta instalazioek egindako herri erabilerarako terrenoak hartzea salbuetsita izango da.

Hobariak:

Eraikitako etxebizitzetan fatxada eta/edo teilatuen garbitze, pintatze eta konpontze lanak egiteagatik, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergatik salbuetsita aurkitzen diren kasuetan, lurzoru publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko kuotari % 50eko hobaria egingo zaio.

2. Ibilgailuak espaloietatik sartzea eta aparkaleku eskusiborako eta edozein motatako merkantzien karga eta deskargarako ibilgailuak geratzeko herri-bidea gordetzea

Sailkapenak eta tarifak

Tasa hau ezartzeko kontuan izango da ondorengo garajeen sailkapena beren edukieraren arabera:

a) Ibilgailu batentzako lekua
b) 2 ibilgailurentzako lekua
c) 3 ibilgailurentzako lekua
d) 4 eta 10 ibilgailu bitarteko lekua
e) 11 eta 30 ibilgailu bitarteko lekua
f) 31 eta 50 ibilgailu bitarteko lekua
g) 51 eta 100 ibilgailu bitarteko lekua
h) 100 ibilgailu baino gehiagorentzako lekua

2.1.- Ibilgailuen sarrerak kaleko espaloietatik

2.1.A- Garajeak	€
------------------------	---



a) atalean sailkatutako garajeak	0,00
b) atalean sailkatutako garajeak	0,00
c) atalean sailkatutako garajeak	0,00
d) atalean sailkatutako garajeak	188,64
e) atalean sailkatutako garajeak	283,97
f) atalean sailkatutako garajeak	378,63
g) atalean sailkatutako garajeak	506,66
h) atalean sailkatutako garajeak	636,23
2.1.B- Galtzadan karga-deskarga	
Sarrerako zabaleraren metro linealeko tarifa	15,47

2.2.-Aparkamendu berezituarentzako herri-bidea gordetzea.

2.2.A- Ibi eta igarobide iraunkorra	€
a) atalean sailkatutako garajeak	73,76
b) atalean sailkatutako garajeak	102,61
c) atalean sailkatutako garajeak	128,86
d) atalean sailkatutako garajeak	227,99
e) atalean sailkatutako garajeak	322,59
f) atalean sailkatutako garajeak	417,69
g) atalean sailkatutako garajeak	545,41
h) atalean sailkatutako garajeak	675,34
2.2.B- Ibi eta igarobide ez iraunkorra	
a) atalean sailkatutako garajeak	57,77
b) atalean sailkatutako garajeak	86,91
c) atalean sailkatutako garajeak	112,82
d) atalean sailkatutako garajeak	212,51
e) atalean sailkatutako garajeak	307,28
f) atalean sailkatutako garajeak	401,93
g) atalean sailkatutako garajeak	529,71



h) atalean sailkatutako garajeak	659,58
----------------------------------	--------

3. Aurrealde, erakusleiho eta beira-arasak

Erakustoki, erakusleiho, muestrario, etxe-aurre apaingarri, erakustokien itxitura eta instalazio osagarriak edota hauen ordezkioak, metro karratu edo zatiko eta urteko (€ m ² /urte)	7,16
--	------

Ondorio guztietarako udal herribideen okupatze gisa hartuko da erakusleiho, efektu, elementu edo instalazioak jabetza pribatuaren planu bertikaleko muga lerrotik irteten direnean, eta udal herribidearen zati bat soilik hartzen badu ere, kibraketarako bere osotasunean hartuko da.

4. Edozein motatako udal herribideen hegalkina elementu hauekin hartzea: eraikuntzako elementu itxiak, terrazak, begiratokiak, balkoiak, markesinak, toldoak, haize-gordelekuak eta antzeko instalazio batzuk, kalearen gainetik edo fatxadaren lerrotik ateratzen direnak.

Itzal-oihal eta aterpeak, metro karratu edo zatiko eta urteko (€ m ² /urte)	7,16
--	------

Ondorio guztietarako udal herribideen okupatze gisa hartuko da erakusleiho, efektu, elementu edo instalazioak jabetza pribatuaren planu bertikaleko muga lerrotik irteten direnean, eta udal herribidearen zati bat soilik hartzen badu ere, kibraketarako bere osotasunean hartuko da.

5. Postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun guneak, feriak edo jolas lekuak jartzea udalaren herri erabilerarako terrenoetan. kaleko industriak, industria ibiltariak eta zine filmaketa barne

5.1.- Feria eta herri-festetako postuak

Ondorengoak izango dira ordaindu beharreko tasak::

1.- Salmenta-postu eta kaseta iraunkorrak, metro karratu edo zatiko eta eguneko (€ m ² /urte)	0,46
2.-Finkoak ez diren salmenta-postu edo kasetak, metro karratu edo zatiko eta eguneko (€ m ² /urte)	0,93
3.-Herriko Zaindariaren festetan eta herriko eta auzoetako festetan jartzen diren salmenta-postu, kaseta eta barrakak, emakidaren arabera.	
4.- Ikuskizun edo Atrakzioek honakoa ordainduko dute metro karratu edo zatiko eta eguneko (€ m ² /urte)	0,17

Herri Zaindarien eta auzoetako festetako festa-barrutietako esparruak esleitzeko, enkante-



sistema erabiltzen bada, hau kasu bakoitzerako Udaletxeak onarturiko oinarri eta baldintzen arabera egingo da.

5.2.- Udal azoka-plazaren erabilera

Zergapeko egitatea Azoka Plazako jarduerak eta bertako zerbitzuak erabiltzeak ezartzen dute. Zerga ordaindu beharra, jarduera baimendu den momentuan hasiko da.

Izendatutako postu finkoak (€ mahai/urte)	10,44
---	-------

Postu bat ez erabiltzeak 3 hilabete jarraian edo urtebetean tartekatutako 4 hilabetetan, esleitutako postua galtzea ekarriko du, aurretik arrazoituak diren kasuetan izan ezik.

5.3.- Kaleko salmentarako herri-jabetzaren erabilera

Kaleko salmenta postu edo instalazio desmuntagarrietan egingo da, eta ezingo dira postuak jarri merkataritza edo industria eremuetarako sarreretan edo beren erakuslehoio edo eraskusketen eta erabilera publikoko eraikinen aurrean.

Kale-salmentarako baimen guztiak Udalak emango ditu, eta aurrez eskaerarekin ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira: lizentzia fiskalaren fotokopia, Gizarte-Segurantzako edo autonomen Errejimeneko altaren fotokopiak eta ordainketetan eguneratua egotearen egiaztatzea. Atzeritarrek, gainera, egoitza-baimena aurkeztu beharko dute.

Tarifak

Plaza Nagusia eta arkupeak:	
a.- Izendatutako postu finkoak (€ m ² /urte)	38,22
b.-Finkoak ez diren postuak(€ m ² /urte)	2,91
Plaza Nagusiatik kanpoko postuak:	
Izendatutako postu finkoak (€ m ² /urte)	32,17

5.4.- Hileroko ganadu eta makineria ferian herri-jabetzaren erabilera

Honako hauek dira ferian egin ahal izengo diren jarduerak:

- Ganadu salerosketa (behiak, ardiak, txerriak, zaldiak eta noiz behinka beste abere batzuk).
- Makineria eta nekazaritza tresnerien osagarriak.
- Zuhaitz landareak.
- Norbanakoarentzako jantzi eta oinetakoak.

1.- Ganadu salmenta	Salbuetsita
2.-Nekazaritzarako makineriaren salmenta (€/urte)	37,28
-Nekazaritzarako makineriaren salmenta (€/egun)	3,94
3.-Nekazaritzarako horniduren salmenta (€/urte)	37,28
Nekazaritzarako horniduren salmenta (€/egun)	3,94
4.-Zuhaitz-landareen salmenta (€/urte)	29,06



Zuhaitz-landareen salmenta (€/egun)	3,04
5.-Norbanakoarentzako horniduren salmenta (€/urte)	56,99
Norbanakoarentzako horniduren salmenta (€/egun)	5,41

Postuak gehienez 6x2m izango dira

6. Zangak, mea zuloak eta sundak irekitzea, udalaren herri erabilerako terrenoetan errepideak, bideak eta gainerako herribideak barne, hodiak, eroanbideak eta bestelako instalazioak jarri eta konpontzeko. halaber, kalean zoladura edo espaloia iraultzea

Atal honetako aprobetxamenduek ordainduko dute metro karratu edo zati eta eguneko (€ m ² /egun)	0,75
--	------

7. Linea elektrikoak, hodiak eta galeriak argindar, ur, gas edo bestelako isurkinak garraiatzeko, bai eta lineen zutoinak, kableak, horma-beso, lotze, banaketa eta erregistro kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikorako aparailuak edota kaleetan edo udalaren herri jabariko bestelako terrenoetan edo haien gainean ezartzen diren antzeko elementuak ere

Kable, hodi, erriel, banaketa eta erregistro-kaxa eta antzeko elementuak:

a) Azalera zko oinarria duten aprobetxamenduetan, lurraren balioaren urteko %10, € metro karratu edo zatiko.	
Etxe-erabilerako gasen biltegiengatiko okupazioak urtean (gehienez)	196,80
b) Luzera-oinarridun aprobetxamenduetan, metro lineal edo zatiko eta urteko (€ m.l./egun)	0,34

8. Udalaren herri erabilerarako terrenoak hartzea mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementu batzuk erabiliz, irabazi asmoa dagoenean.

8.1. Mahai, beladore, aulki, zoladura, loreontzi, itzalki edo antzeko instalazioak.

Tarifa € / m²

Urteko	26,68
Maiatzaren 1etik urriaren 31ra	20,04



Tarbena kanpoan jarritako barrika edo antzerako bakoitzeko	26,68
--	-------

Mahaiak ateratzeko beharrezkoa da baimena eskatzea. Baimena urtarilean eskatu behar da alta berriak izan ezik.

Tarifa hauek ez dira hainbanatuko hilabetetan, maiatzetik urrira bitarteko erabilerek epealdi osoa ordainduko dute eta hilabete horietatik kanpoko erabilerek urte osoa, jarduera berriek izan ezik.

Tasa ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkien tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko zaizkie.

Baimena eskatu ezean eta mahaiak aterako balituzte ikuskapeneko txostenean azaltzen diren mahai edo m² kopuruari dagokion urteko tasa osoa likidatuko da.

Baimenean emandakoa baino mahai kopuru gehiago aterako balute, mahai edo m² kopuru honi dagokion urte osoko tasa likidatuko da.

8.2-Herri erabilerarako terrenoak hartzea edariak saltzeko makina edo antzeko instalazioekin

Zergapeko egitatea beren establezimenduen aurrean eta herri erabilerarako lursoruan edari, gozoki edo tabakua saltzeko makina desmuntagarriak jartzeak ezarriko du.

Zerga ordaindu beharra, jarduera baimendu den momentuan hasiko da. Makinak ezartzeko baimen guztiak Udalak emango ditu, eta aurrez eskaerarekin ondorengo agiriak urkeztu beharko dira: lizentzia fiskalaren fotokopia, Gizarte-Segurantzako edo autonomen Errejimeneko altaren fotokopiak eta ordainketetan eguneratua egotearen egiaztagiria.

Hileroko karga-tasa lursoruaren m2ko edo zatiko balioaren gainean % 5,39koa izango da.

8.3. Trakzio mekanikodun ibilgailuekin herri erabilerako terrenoak hartzea, irabazi asmoa dagoenean

Zergapeko egitatea irabazi asmoarekin herri erabilerarako lursoruak trakzio mekanikodun ibilgailuekin hartzeak ezarriko du, helburua horien salmenta jendeari iragartzea denean.

Zerga ordaindu beharra, jarduera baimendu den momentuan hasiko da, eta helburu hauetarako herri erabilerarako terrenoak hartzeko baimen guztiak Udalak emango ditu.

Aplikagarri den zerga kuota lortzeko, hartutako metro karratuen kopuruarekin biderkatuko den hileko (€) tarifa	2,04
--	------

- Herri erabilerarako lurzorua gehienez 4 ibilgailuk hartuko dute
- Herri erabilerako terrenoak hartzeko ordutegia 8:00etatik 20:00ak artekoa izango da.
- Herri erabilerarako lurzorua larunbat, igande eta jaiegunetan hartzea debekatua dago.

8.4. Kutxazain automoatikokoak bide publikotik dutenean zerbitzua



Azpeitiko herrigunean bide publikotik zerbitzua ematen duen kutzazain bakoitzeko (€) urtean. Azpeitiko herrigunetik kanpo gelditzen diren auzoetan daudenak salbuetsita daude.	333,46
--	--------

9.-Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia

I – Xedapen Orokorrak

1. Udal honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorrituz, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei tasak ezartzen eta ordainarazten dizkie udalerriko bideetako lurzorua, zorupearen eta lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik.
2. Ondore horietarako, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresatzat honako hauek joko dira:
 - a) Energia elektrikoaren, uraren edo gasaren hornikuntzan diharduten enpresak.
 - b) Herritar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak egiten dituzten enpresak, baldin eta osorik edo zati batez erabiltzen badituzte udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak, sareen edo instalazioen titularra edozein dela ere.
 - c) Hornidura zerbitzuak egiten dituen edozein enpresa, baldin eta zerbitzuak egiteko erabiltzen dituen tutueria, hari eta gainerako instalazioek udalerriko lurzorua, lurgaina edo zorupea atzematen badute.
3. Hemen ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.
4. Ordenantza hau udalerri osoan aplikatuko da.

II – Zergapeko egitatea

- 1.- Zergapeko egitatea honakoa da: hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea, zerbitzuok interes orokorrekoak badira, edo eragina badute udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan.
- 2.- Tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide hau aurreko artikuluan aipatutako enpresa guztiei aplikatuko zaie, bai zerbitzuak egiteko erabiltzen dituzten sareen titular direnei, bai sareen titular ez izan arren sareak erabiltzeko, sareetan sartzeko edo haiekin konektatzeko eskubideen titular direnei.
- 3.- Sakelako telefonoen zerbitzuak ez dira sartuko tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide berezi honetan.
- 4.- Tasa hau bateragarria da udal eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezar litezkeen beste tasa batzuekin, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek haien subjektu pasibo izan behar dutenean 5/89 Foru Arauaren 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Tasa hau ordaintzen duenak ez du edukiko udalerriko bide publikoetako lurzorua,



zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako gainerako tasak ordaindu beharrik.

III – Subjektu pasiboa

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen titularrak izanez gero, baldin eta zerbitzuok interes orokorrekoak izan edo udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan eragina badute, eta haiek egiteko udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiten bada.

2. Hemen ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.

IV – Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

Salbuespenak, eta bestelako onura fiskalak, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V – Zerga oinarria

1.- Tasaren zerga oinarria kalkulatzeko, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerrian urtean egiten duten fakturaziotik ateratako sarrera gordinak hartuko dira kontuan.

2.- Sarrera gordinak izango dira enpresari egotzi ahal zaizkionak, udalerrian egindako zerbitzuen ordainez lortutakoak badira.

3.- Ez dira sarrera gordintzat joko zerbitzuen gaineko zeharkako zergak, ez eta gainontzekoen kontura kobratutako partidak edo kopuruak ere, hornidura zerbitzua ustiatzen dituen enpresaren beraren sarrerak ez badira.

Halaber, ez dira sartuko fakturazioko sarrera gordinetan Ekonomia Ministerioaren Elektraenergia Ekoizteko Insta-lazioen Administrazio Erregistroko 1. edo 2. atalean inskribatutako instalazioetan araubide berezi honen arabera zerga-ordainketari lotuta dagoen energia sortzeko erabiliko den lehengaia hornitzeagatik jasotzen diren kopuruak.

4.- Zerbitzuak egiteko besteen sareak erabiltzen dituzten enpresek euren fakturazioaren sarrera gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa batzuei beraien sareekin konektatzeagatik edo haietan sartzeagatik ordaindutako kopuruak. Halako sareen titular diren enpresek horregatik jasotako kopuruak fakturazioaren sarrera gordin gisa konputatu behar dituzte.

5.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 111. artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ikuskapenari buruzko Araudiaren 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sareen titular diren enpresek Udalarri informazioa eman beharko diote, hark eskatuz gero, sareetan sartzeagatik edo haiekin konektatzeagatik ordaintzen dieten enpresei buruz.

VI – Kuota

1.- Zerga kuota % 1,50ekoa izango da, eta udalerrian urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinei aplikatuko zaie.

2.- Aprobetxamendu bereziak udalerriko jabari publikoko ondasunak suntsitzea edo narriatzea badakar berekin, onuradunak haiek berreraikitze edo konpontzeko gastu osoa



Azpeitiko Udala

ordaindu beharko du eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko du; horrez gain tasa ordaindu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordainaren zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioa edo narriadurari dagokiona izango da.

Udalak ezin ditu barkatu idatz-zati honetan adierazitako kalte-ordainak eta itzulketak, ez osorik, ez zati bat.

VII Sortzapena eta zergaaldia

1.- Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da lehenengoz, eta geroztik urtero sortuko da, urtarilaren 1ean.

2.- Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabaritza publikoaren aprobetxamendua ezin baliatu edo garatu bada, tasaren zenbatekoa itzuli egingo da.

VIII- Likidazioa eta sarrera

Udalak likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoaren sarrera egingo da.

IX – Tasen kudeaketa

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiru hilean behin, egutegiko hiruhilekoaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan izandako sarrera gordinen aitorpena aurkeztu beharko diote Udalari. Aitorpen horrekin batera, udalerrian eginiko fakturazioa egiaztateko agiriak aurkeztuko dituzte, eta Udal Administrazioak eskatzen dizkien gainerako agiriak.

1. Udal Administrazioak hiruhilean behingo likidazioak egingo ditu. Behar diren egiaztapenak egin arte likidazioak behin-behinekoak izango dira. Egiaztapenak amaituta, behin betiko likidazioa egingo da eta interesatuari jakinaraziko zaio. Borondatezko epean ordaindu ezik, zorra premiamendu bidez ordainaraziko da.

2. Behin-behineko likidazioa, nolanahi ere, behin betiko bihurtuko da aurreko artikuluan aipatutako aitorpena aurkeztu den egunetik hiru urte igarotakoan.

3. Udalaren eta hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean hitzarmen edo akordioaren bat badago, kudeaketari buruz hemen ezarritako arauak ordeztukoak izango dira.

Zergen arloko arau-haustek, haien sailkapena eta dagozkien zehaztapenak direla eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoa beteko da.

10.Trakzio mekanikodun ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea horretarako erabakitako guneen barruan eta muga jakin batzuekin

10.1. Taxi-geltokia

Tasa hau ordaintzera derrigortuak daude Taxi-geltokirako aparkaleku erreserba egiten dutenak, eta Udalak lizentzia emandako taxi titularrek ordaindu beharko dute.



Taxi-geltokiaren leku gordetzea, € urtean	18,18
---	-------

10.2.- Autoentzat gordetako eremuak

Herrigunean lerro urdinarekin gordetako eremuetan, honela mugatuko da:

- Denboraz mugatutako (40 minutu) Aparkatze eremua. Tiketa jarri behar da.

Astelehenetik larunbatera: 9:00tatik 13:30etara eta 16:00tatik 20:30etara.

Igande eta jaiegunetan ez dago denbora mugarik.

TARIFA

- 40 minutu: DOHAINIK

10.3. Autokarabana eta karabanentzat gordetako eremua

<u>Autokarabanak</u>	
DGTn Azpeitian alta emanda dagoen autokarabanek € urteko	208,48
DGTn Azpeitian alta emanda ez dagoen autokarabanek € urteko	472,40
Aipatutako urteko kuota urte osoari dagokio eta bere osotasunean ordaindu beharko da nahiz eta aparkalekua epealdi batzuetan ez erabili. Aparkalekuaren erabilera urte naturala baino lehenago amaitu nahi bada, ez da kuotako inolako zatirik itzuliko.	
<u>Karabanak</u>	
Karabana jabea Azpeitian erroldatuta badago, € hileko	43,93
Karabana jabea Azpeitian erroldatuta badago, € urteko	417,37
Karabana jabea Azpeitian ez badago erroldatuta, € hileko	49,43
Karabana jabea Azpeitian ez badago erroldatuta, urteko	472,40
Aparkalekua erabili nahi den hilabetetik aurrera (hau barne) ordainduko da eta ordaindu beharreko kuota hilabetetan banatu ahal izango da. Urte osoa ordaindu ezean, erabiltzen dena hileko prezioarekin kobratuko da.	

11. Udalaren herri-jabetzapeko edo herri erabilerarako zortasunako landabideen gozamen eta erabilera arrunt edo berezia.

Udalaren herri-jabetzapeko edo herri erabilerako zortasunako landabideen erabilera arrunt edo bereziagatik emandako baimen bakoitzeko €	219,58
---	--------

12. “Baratza programa” barneko baratzen erabilera lagapena

- 40 m ² -ko baratza erabiltzaileek, € hilero (ur kontsumoa barne dela)	3,35
--	------



Azpeitiko Udala

- 85 m ² -ko baratza erabiltzaileek € hilero (ur kontsumoa barne dela)	6,66
---	------

Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala, eranskin honetako tarifak beronen zati direnak, behin betiko onartu zen adierazitako 1998ko urriaren 22ko Udalbatza erabakian, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

Dagozkion aldaketak, eranskina barne, behin betiko onartu ziren, 1999ko urriaren 22an 2000ko urriaren 25ean, 2001eko urriaren 11n, 2002ko urriaren 16an, 2003ko urriaren 2an, 2004ko urriaren 15ean, 2005eko urriaren 6an, 2006ko urriaren 5ean, 2007ko urriaren 4an, 2008ko urriaren 16an, 2010eko ekainaren 3an, 2010eko azaroaren 4ean, 2011ko urriaren 21ean, 2012ko azaroaren 6an, 2013ko urriaren 16ko, 2014ko otsailaren 13an, 2015eko urriaren 6ko, 2016ko urriaren 4ean eta 2017ko urriaren 3ko, 2018ko urriaren 2an, 2019ko urriaren 15eko, 2020ko urriaren 8ko, 2021eko otsailaren 23ko, 2021eko urriaren 5eko, 2023ko urriaren 3ko, 2024ko urriaren 8ko eta 2025eko urriaren 7ko Udalbatza erabakietan, inolako erreklamaziorik ez izatean.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



8. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen ordenantza arautzailea

1. Artikulua

Eraskineko tarifetan zehazten diren jarduerak burutu edo zerbitzuak eskaintzeagatik prezio publikoak ezarri eta ordainaraziko dira, Ordenantza honetako arauari jarraituz (Eraskineko tarifak Ordenantza honen zati dira).

2. Artikulua

Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

3. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak zerbitzu edo jardueren onuradunek ordainduko dituzte.

4. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen tarifak Eranskinean jasotakoak dira.

5. Artikulua

Ordaindu beharreko diru-kopuruak eskatu edota burututako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira, epigrafeetan adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.

6. Artikulua

Ordenantza honetan adierazten diren zerbitzuak eskaintzeko edo udal jarduerak burutzeko, aldez aurretik Udal Administrazioari horiek eskaini edo burutzeko baimena eskatu beharko zaio. Zerbitzu edo jarduera horiek, nolahi ere, emantzat joko dira Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzen badira, eta hauen epea luzatu ondoren prezio publikoa ordaintzen ez bada, zerbitzua eskaintzeko edo jarduera burutzeko aukera galaraziko da automatikoki.

7. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaindu beharra, zerbitzua eskaintzen edo jarduera burutzen hasten denean sortuko da.

Hala ere, zerbitzuak eskaintzea edo jarduerak burutzea dagoeneko onetsita badago eta luzatu bada, zerga ordaindu beharra, dagokien tarifetan adierazitako epealdi natural bakoitzaren aurreko egunean sortzen da.

8. Artikulua

Prezio publikoaren ordainketa honako kasuetan egingo da:



- Zerbitzuak eskaini edo jarduerak burutzeagatik bada, ordainketa zuzenean udal gordailuan egingo da, zerbitzua eskaini edo jarduera burutu aurretik eta adierazitako gutxieneko zenbatekoaz.
- Beren izaera dela eta, aldez aurreko diru sarrera egiteko aukera ematen ez duten zerbitzuak eskaini edo jarduerak burutzean, Administrazioak dagokion faktura aurkezten duenean.
- Zerbitzu eskaintza edo jarduerak burutzea urtez urtekoa denean, horiek prezio publikoen matrikuletan sartu ondoren, urte naturalen arabera.
- Zerbitzu eskaintza edo jarduerak burutzea hilabeterako kontrataua denean, hilabete naturalen arabera.

9. Artikulua

Prezio publikoa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jarduera burutzen ez denean, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

10. Artikulua

Prezio publiko hauengatik sortutako zorrak premiamendu-prozedura administratiboa erabiliz ordainarazi ahal izango dira.

11. Artikulua

Ordenantza honetan erregulatzen den Prezio Publiko honen likidazio, bilketa eta ikuskapenari dagokion guztian Tributuekiko Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Amaierako xedapena

Ordenantza Fiskal hau, bere eranskinarekin, behin betiko onartu zen hemen adierazten diren datetan. 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta hala jarraituko du aldatzea edo derogatzeko erabakitzen ez den bitartean.

1 Pertsonal, material eta beste edozein motatako zerbitzuak ematea

Pertsonak	€
Teknikaria, orduko edo zatiko (ordu)	57,94
Arduraduna, orduko edo zatiko(ordu)	38,59
Ofiziala, orduko edo zatiko (ordu)	28,92
Gainontzekoak orduko edo zatiko (ordu)	24,14
Materialak	€
Garabi-kamioi jasotzailea (gidaria barne) (ordu)	107,58
Garbigailua (gidaria barne) (ordu)	107,58



Eskuzko garbigailua (ordu)	53,86
----------------------------	-------

2 Logopedia zerbitzua

Erabiltzaileko (€ hila)	16,60
-------------------------	-------

3 Soreasuko lurpeko aparkalekuak eta trastelekuak

Hileko bonoa (BEZa barne) (€ hila)	61,99
Urteko aparkalekuen bonoa (BEZa barne) (€ urtea)	334,09
Urteko trastelekuen bonoa (BEZa barne) (€ urtea)	112,00
Urteko aparkaleku+trastelekuen bonoa (BEZa barne) (€ hila)	388,72

- a) Aparkalekuaren jabe ez direnek edo bonorik ez dutenek, lehen 14 ordu dohainik izango dituzte beti ere ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

1. Kale hauetan errolatutako herritarra izatea:

- Plaza Txikia
- Enparan kalea
- Erdikale
- Elizkale
- Done Jakue Kalea
- Txaribarko Errebala
- Perez Arregi Plaza
- Soreasu Auzoa
- Magdalena Auzoa
- Damaso Azkue Plaza
- Julian Elortza Etorbidea

2. Ibilgailua bere izenean izatea.

3. Ibilgailuaren helbidea Trafiko Zuzendaritzan aipatutako kale horietan izatea lehenetsiko da eta Azpeitiko helbidea izatea ezinbestekoa izango da.

4. Etxebizitza bakoitzeko gehienez ibilgailu batek izango ditu 14 ordu dohainik.

14 ordu pasa eta 1. minututik aurrera: 0,0099 € / minutuko, BEZa barne ordainduko dute.

- b) Aparkalekuaren jabe ez diren edo bonorik ez duten eta aurreko baldintzak betetzen ez dituztenek, aparkatzeagatik lehen 5 orduak dohainik izango dituzte.

5 ordu pasa eta 1. minututik aurrera: 0,0099 € / minutuko, BEZa barne ordainduko dute

4. 1766ko Matxinada Kaleko lurpeko aparkalekuak

Lehen 3 ordu (BEZa barne) (€ ordu)	0,20
------------------------------------	------



180. minututik aurrera, (€ BEZa barne) (minutu)	0,0181
---	--------

- 19:00etatik 9:00etarako ordutegian dohainik izango dute, beti ere ondorengo baldintzak betetzen badituzte:
 1. Kale hauetan erroldatutako herritarra izatea:
 - 1766ko Matxinada kalea
 - Goiko Kalea
 - Olazko Amaren plaza
 - Buztinzuriko Errebala
 - Arana kalea 1, 3, 5
 - Plaza Nagusia
 - Foru Ibilbidea
 - Artzubia Etorbidea 1
 - San Martin Estrata
 2. Ibilgailua bere izenean izatea.
 3. Ibilgailuaren helbidea Trafiko Zuzendaritzan aipatutako kale horietan izatea lehenetsiko da eta Azpeitiko helbidea izatea ezinbestekoa izango da.
 4. Etxebizitza bakoitzeko gehienez ibilgailu batek izango du 19:00etatik – 9:00etarako barnean egindako erabilera 0,0181 € / minutuko, BEZa barne ordainduko dute.
- Udal azoka plazan postuak jartzen dituztenek astean 7 ordu dohainik izango dituzte.

5 Tutelatu eta larrialdiko etxebizitzak

Bakarkakoak

Zerbitzuaren kostua hilean 239,54 €-koa izango da, mantentze-lanen gastu guztiak barne, telefono gastuak izan ezik.

Nolanahi ere, gehieneko kopuru bat ezarriko da mantentze-lanen gastuetarako. Egindako gastuak kopuru hori gainditzen badu, hortik gorakoa erabiltzaileak berak ordainduko du.

Baremo ekonomikoa

Pertsona bakoitzeko 266,85 €-ko kopurua ezarriko da nahi denerako erabiltzeko. Kopuru horretatik kenduko da seme-alaben edo senar-emazteen janari gastuetarako beharrezkoa, bai eta, mailegu-gastuei dagokien kostua ere. Nolanahi ere, azken kostu hau kasu bakoitzean baloratuko da.

Familikoak

Zerbitzuaren kostua hilean 426,54 €-koa izango da, mantentze-lanen gastu guztiak barne, telefono gastuak izan ezik.

Nolanahi ere, gehieneko kopuru bat ezarriko da mantentze-lanen gastuetarako. Egindako gastuak kopuru hori gainditzen badu, hortik gorakoa erabiltzaileak berak ordainduko du.

Baremo ekonomikoa



Azpeitiko Udala

Pertsona bakoitzeko kopuru bat ezarriko da nahi denerako erabiltzeko. Kopuru horretatik kenduko da seme-alaben edo senar-emazteen janari gastuetarako beharrezkoa, bai eta, mailegu-gastuei dagokien kostua ere. Nolanahi ere, azken kostu hau kasu bakoitzean baloratuko da.

- 2 pertsona.....372,91 €

- 3 pertsona.....452,80 €

- 4 pertsona.....506,39 €

Hortik gora pertsona bakoitzeko 53,58 € erantsiko dira.

Larriadiko etxebizitza

Pertsonak tratu txarrak jasan izan baditu, lehenbiziko hilabetea dohainik izango du, eta hortik aurrera 266,85 €-ko kostua izango du. Nolanahi ere, azken kostu hau kasu bakoitzean baloratuko da.

Beste kasu guztietan tutoretzapeko etxebizitza gizarte menpekotasunen bat duten familientzako kostua eta baremoa ezarriko da.

6. Azpeitiko adinekoentzako ostatu zerbitzuaren zerga araudia

AURKIBIDEA

1. Artikulua. Xedea
2. Artikulua. Definizioa
3. Artikulua. Zerbitzuaren ezaugarriak eta modalitateak
4. Artikulua. Prestazioak
5. Artikulua. Zerbitzuaren prezio publikoa
6. Artikulua. Erabiltzailearen ekarpena
7. Artikulua. Ordaintzeko modua

1.Artikulua. Xedea

Erregelamendu fiskal honen xedea da erabiltzailearen prezio publikoaren ekarpen ekonomikoa arautzea, adinekoentzako ostaturako udal-zerbitzua emateari dagokionez, Azpeitiko udalerriko gizarte-zerbitzuen arloko eskumenen esparruan.

2.Artikulua.- Definizioa

Ostatua emateko udal-zerbitzu bat da, egonaldi luzekoa edo erabilera iraunkorrekoa eta aldi baterako bereziki erabiltzekoa, adinekoentzat, eta langileen laguntza du tutoretza, bitartekaritza, gizarte-laguntza eta gainbegiratze eginkizunak betetzeko, bai eta, hala badagokio, arreta pertsonala eta etxekoa ere.

3. artikulua.- Zerbitzuaren ezaugarri eta modalitateak

Adinekoentzako ostatu-zerbitzua modalitate hauetako batean edo biak konbinatuta eman ahal izango da:



Tutoretzapeko apartamentuak: etxebizitza autonomoak dira, gehiago edo gutxiago egon daitezke, diseinu funtzionalarekin eta erabiltzaile guztientzako zerbitzuekin, aukeran erabiltzeko.

Etxebizitza komunitarioak: ekipamendu kolektiboa da, antolatzeko hainbat aukerarekin: etxebizitza arruntak dituen eraikin batean txertatuta egotea, beste gizarte-ekipamendu batzuen ondoan dagoen eraikin batean kokatzea, edo helburu hori daukan eraikin berezian jartzea.

4. Artikulua.- Prestazioak

Adinekoentzako ostatu-zerbitzuan honako prestazio hauek eman ahal izango dira:

Oinarrizko prestazioak:

- a. Ostatua
- b. Tutoretza eta gainbegiratzea
- c. Jarraipenaren balorazioa – Gizarte arloko laguntza-zerbitzua
- d. Bitartekotza-bitartekaritza
- e. Egoiliarrentzako informazio-zerbitzua
- f. Komunikazio- eta segurtasun-zerbitzua

Prestazio osagarriak eta aukerakoak:

- a. Eguneroko zereginetarako banakako laguntza-zerbitzua
- b. Mantenua, hala badagokio
- c. Garbitegia, hala badagokio
- d. Osasun-arreta

5. Artikulua.- Zerbitzuaren prezio publikoa

Araudi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileak prezio publiko bat ordaindu beharko du, bere ahalmen ekonomikoa eta ebazten zaizkion zerbitzu motak kontuan hartuta kalkulatu dena. Gaitasun hori finkatzeko, zerbitzuaren onuradun guztien errenta eta ondarea hartuko dira kontuan.

Prezio publikoak elementu horien arabera eta prezio publikoa arautzen duen udal-araudian ezarritako irizpideen arabera ezarriko dira.

Erabiltzaileek legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen bidez jarduten badute sarbide-araudian aurreikusitako baldintzetan, azken horiek prezio publikoa ordaintzera behartuta egongo dira, baina, kasu horietan, ordainketa ordezkatuaren errentaren eta ondarearen kargura egingo da, eta zenbatutako gaitasun ekonomikoa ordezkatuarena izango da.

Zerbitzuaren erabiltzaileak ezin badio aurre egin legokiokkeen prezio publikoa ordaintzeari, zerbitzua eskuratzeko eskaera egin aurreko lau urteetan erabiltzaileak dohainik egindako ondare-eskualdaketa batek edo gehiagok mesede egin dien pertsonak daudenean, azken horiek prezio publiko ordaintzera behartuta egongo dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.



Azpeitiko Udala

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutzen edo ezkututzen badira, eskaera artxibatu egingo da, edo, dagoeneko eman bada, zerbitzua azkendu, hargatik eragotzi gabe gertakari horietatik erator daitezkeen erantzukizunak.

Zerbitzuaren erabiltzaileek eta, hala badagokio, haien legezko ordezkariak, errentan, ondarean edo familia-unitateko pertsona-kopuruan izandako edozein aldaketaren berri eman beharko diote Azpeitiko Udalari, 30 eguneko epean, bai eta erabiltzaileak ordaindu beharreko prezio publikoan eragina izan dezakeen edozein gorabeheraren berri ere.

Erabiltzaileak ordaindu beharreko prezio publikoa ofizioz berrikusi beharko dute udaleko teknikariak, edo erabiltzaileak edo haren ordezkariak eskatuta, baldin eta aldaketak eragin ditzaketen baldintza eta inguruabarretako edozeinetan aldaketarik gertatzen bada.

Udalak, ordenantza fiskalen bidez, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezio publikoa ezarriko du urtero, bai oinarritzko zerbitzuengatik, bai zerbitzu osagarriengatik, eta pertsona bakoitzeko prezioa apartamentu indibidualagatik, apartamentu partekatuagatik edo etxebizitza komunitarioagatik.

Azpeitiko Udalak ezarritako prezioen araubideak ezartzen du erabiltzaileak aldian-aldian ordaindu behar duela, tutoretzapeko apartamentuetan edo etxebizitza komunitarioetan sartutako zerbitzuak erabiltzeagatik eta emateagatik.

Ordaindu beharreko tarifa hilerik likidatuko da, apartamentua edo etxebizitza zenbat egunez okupatu den kontuan hartu gabe. Alta berrien edo behin betiko baje kasuetan soilik aplikatuko da kuota proportzionala hartutako aldiari dagokionez, salbu eta aldi baterako etenaldian badaude, batzorde teknikoak hala arrazoituta eta baloratuta, eta kasu horietan une bakoitzean indarrean dagoen araudian horretarako zehaztutakoa aplikatuko da.

Erabiltzaileari baja eman ondoren, Azpeitiko Udalak hartutako zorra kobratuko du, eta zor duen diru-kopurua atzeratuko du, halakorik balego.

6. Artikulua- Onuradunaren ekarpena.

Egin beharreko ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko, bizikidetz-unitatearen baliabideak hartuko dira kontuan. Bizikidetz-unitatearen baliabideak zehazteko, eskatzailearen eta unitate horretako gainerako kideen baliabide guztiak zenbatuko dira, bai errendimenduak, bai ondarea.

Hauek osatzen dute bizikidetz-unitatea:

- . Eskatzailea
- . Ezkontidea edo izatezko bikotekidea.
- . Etxean bizi diren eta ekonomikoki zerbitzuaren erabiltzailearen mendekoak diren 30 urtetik beherako seme-alabak.



Azpeitiko Udala

. 30 urteko edo gehiagoko seme-alabak, judizialki ezgaituta daudenean edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna aitortuta dutenean, etxean bizi direnean eta ekonomikoki mendekoak direnean.

Seme-alabak ekonomikoki mendekoak direla ulertuko da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (12 ordainsari) % 60tik beherako diru-sarrerak dituztenean.

Lehenengo ekarpena

Erabiltzaileak urteko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) bi aldiz eta erdi baino gehiagoko balioa duen ondare indibiduala duenean, ezarritako gehieneko ekarpena ordainduko du. DSBEaren ezarritako zenbatekoa kontuan hartuko da, inolako osagarririk gabe.

Bizikidetza-unitatea kide batek baino gehiagok osatzen badute, DSBEak pertsona bat baino gehiagorentzat ezarritako zenbatekoak aplikatuko dira, unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera.

Gehieneko ekarpenak honako hauen arabera bereizten dira:

- a. Apartamentu indibiduala
- b. Apartamentu bikoitza
- c. Etxebizitza komunitarioa

Erabiltzaileak gehieneko ekarpena ordainduko du egun-kopuruan, formula honen bidez kalkulatuta:

Ondare indibiduala – (DSBEren % 250, 12 ordainsari)/Gehieneko ekarpena = gehieneko tarifa ordaindu beharreko egun-kopurua

Gehieneko ekarpen ekonomikorako ezarritako egunen epea igarotakoan, erabiltzaileak bere diru-sarreraren arabera soilik kalkulaturako ekarpen bat ordainduko du.

Bigarren ekarpena

Errenta indibidualaren % 100/365 egun.

Hau da:

Banakako errenta: bizikidetza-unitatearen urteko errenta/kideen kopurua.

Goian adierazitako formula aplikatu ondoren (bigarren ekarpena) ez bada bermatzen erabilera askerako hileko DSBEaren % 60ko gutxieneko zenbatekoa, ekarpen ekonomikoa murritzu egingo da zenbateko hori bermatu arte.

Hala ere, pertsona guztiek egunean ordaindu beharko dute gutxienez, norberaren aukerako zenbatekoa alde batera utzita.



Era berean, lortutako zenbatekoa lehen aipatutako gehieneko ekarpenak baino handiagoa bada, erabiltzaileak dagokion gehieneko ekarpena ordainduko du.

Gehieneko ekarpena osorik ordainduko dute behar diren ziurtagiri ekonomikoak ematen ez dituzten eta eskabidean aurkeztutako datu ekonomikoak Ogasun eta Finantza Sailean eskuragarri dauden datu fiskalekin egiaztatzeko baimena ematen ez duten pertsonak, bai eta dagozkion egiaztapenak egiteko baimena ematen ez dutenek ere. Kasu horietan, ezin izango da bermatu artikulu honetan ezartzen den erabilera libreko gutxieneko zenbatekoa.

Honako hauek hartuko dira errenta eta ondareztat:

a) Ondareztat hartzen da kapital higigarri eta higiezin guztia (landa-ondasunak eta hiri-ondasunak), eskaera hasi aurreko lau urteetatik baloratua, eta erabilgarritasun aske gisa mantentzen da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren urteko konputua bi aldiz eta erdi.

Erabiltzaileak etxebizitza propioa duenean, errentamenduan jartzeko eskatuko zaio, ahal dela Bizigune Zerbitzuari eskainiz, lortzen dituen alokairuko diru-sarrerak diru-sarrera konputagarrien iturri gisa kontabilizatuz. Pertsonak alokatu nahi ez badu, ondare gisa duen katastro-balioa hartuko da kontuan.

Jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealeen balioa (gozamena, etab.) kalkulatzeko, Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan horretarako ezarritako arauak aplikatuko dira.

Kapital higigarritzat hartzen dira kontu korronteko eta epeko gordailuak, inbertsio-funtsak eta pentsio-funtsak, balore higigarriak, bizi-aseguruak, eta balio-objektu diren aldi baterako edo biziarteko errentak.

Erabiltzaileak ondare higieztina duenean, ondare gisa kontabilizatuko da ondare horren katastro-balioa.

Ez dira ondare gisa zenbatuko: Zenbatutako ondasun eta eskubideen gainean pisatzen duten kargak eta kargak, ondasun eta eskubide horiek eskuratzeko edo birgaitzeko hartutako konpromisoak zor zaizkienean, haien balio garbia kalkulatzeko deskontatuko dira. Era berean, notarioaren edo banku-erakundearen aurrean bizikidetza-unitatearen betebeharre aurre egiteko eraturako zorrak eta konpromisoak ondare-balioen baturatik deskontatuko dira.

Era berean, ez dira ondare gisa zenbatuko inguruabarrak direla-eta saldu edo alokatu ezin diren eta espedientean behar bezala egiaztatuta geratzen diren higiezin-baloreak, eta inguruabar horiek aldatzen diren unean, kontuan hartu beharko dira.

Honako hauek hartuko dira errenta edo diru-sarrera konputagarritzat:

Eskatzaileak, haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak eta/edo laguntzaileak urtean dituen errendimenduak eta eskubideak, lanaren eta kapitalaren ondoriozkoak, bai eta jaso daitezkeen beste guztiak ere, zehazki:

Funts publiko edo pribatuen kargurako pentsio eta prestazio ekonomikoak. Diru-sarrera garbiak zenbatuko dira.



Azpeitiko Udala

BGAE batean edo antzeko aurreikuspen-planetan edo aseguru-kontratuetan eduki ekonomikoa duten eskubideengatik lortutako diru-sarrerak.

Norberaren edo besteren konturako lanetik eratorritako etekinak; diru-sarrera garbiak zenbatuko dira.

Sariak eta aparteko diru-sarrerak. Aparteko sarreratzat hartuko dira jaraunspenak eta legatuak, dohaintzak, ondarea saltzeagatik sortutako baliabideak eta aurreko paragrafoetan jaso gabeko beste edozein diru-sarrera, ez-erregularrak edo salbuespenez lortutakoak. Diru-sarrera horiek ondare gisa baloratu ez direnean zenbatuko dira, sortzapenaren ondorengo 4 urteetan. Urte bakoitzeko, sariaren edo aparteko diru-sarreraren batura garbia laurekin zatitzearen emaitza zenbatuko da.

Errenta ez-konputagarriak:

Epai judizial bidez ezarrita egoteagatik mantenu-pentsioak edo konpentsazio-pentsioak ordaintzeko diren zenbatekoak.

Ingurune fisikoa laguntzeko eta egokitzeko produktuak erosteko dirulaguntza publikoak.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko azaroaren 14ko 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoak.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestazio ekonomikoak, 12 hilabeterako

Baliaezintasun handiagatik osagarria, beste pertsona baten premiagatik kotizazio gabeko baliaezintasunagatik pentsioaren osagarria, % 75eko edo gehiagoko desgaitasuna duen 18 urtetik gorako ardurapeko seme-alabagatik esleipen ekonomikoaren osagarria, eta azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren hirugarren pertsonagatik laguntza-subsidioa.

Ondasun higiezinak ondare gisa baloratuko direla kontuan hartuta, horien errentamenduaren bidez lortutako kapital higiezinaren etekinak ez dira zenbatuko bizikidetza-unitatearen errenta kalkulatzeko, ohiko etxebizitza izan ezik, alokatuta egonez gero. Kapital higigarriaren etekinak ere salbuetsita egongo dira.

Izaera finalista duten beste gizarte-prestazio batzuk, hala badagokio.

Oharra: Ezkontideek edo izatezko bikoteek diru-sarreraren bat egiten badute, bi ezkontideen diru-sarreraren eta kenkarien batura egingo da, eta zati bi egingo da. Pertsona bakoitzari bere ekarpen-kuota aplikatuko zaio.

Ezarritako prezioak (€/eguneko)

Zerbitzua pertsonako	Gutxienez	Gehienez
Banakako apartamentua	10,50	21,00
Banakako apartamentua konpartituta	10,50	10,50



Azpeitiko Udala

Apartamentu bikoitza	6,83	13,66
Etxebizitza komunitarioa	5,25	10,50

Etxebizitza pertsonari esleitu ondoren finkatutako prezioek ezarritako zenbateko osoa ordaindu beharko dute, erabiltzailea etxebizitzan bizi ez bada ere.

Prezioan sartutako oinarrizko kontzeptuak

- Gainbegiratzeta eta gizarte-laguntza, honetan datzana: pertsonari zuzeneko arreta ematea, pertsonari gainbegiratzeko funtzioa, gizarte-laguntza, komunitate-ingurunera hurbiltzea: gizarte-laguntza, larrialdi-egoeran arreta ematea.
- Asteko aisialdi-zerbitzua
- Etxearen hiru hilean behingo garbiketa orokorra
- Eremu komunak garbitzea
- Etxebizitza mantentzea. Argia, telefono-gasa eta wifia.
- Etxebizitzako elementuak mantentzea.

7. artikulua.- Ordaintzeko modua.

Hileko kuotaren ordainketa udalak ezarritako datetan likidatu beharko da, ordainketa helbideratzen saiatuko da. Ezarritako epeetan ordaindu ez diren zorrak dagokion administrazio-prozeduraren bidez eskatuko dira (premiamentua/betearazpena). Eskatutako zerbitzu osagarri guztiak fakturatuko dira, erabili ez badira ere, aldez aurretik abisatu ez badira.

Tarifa orokorrean sartzen ez diren zerbitzu osagarriei dagozkien prezio publikoak egoki iritzitako moduan ordainduko dira, ostatuaren kuotarekin batera, eta egoiliarren kontura izango dira.

Erabiltzaileei ordainagiria emango zaie, ordaintzen dituen zerbitzuen berri ematen diena, eta likidazioa egingo da etxebizitzako egonaldia amaitzean.

Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko zerbitzua indarrean jarri aurretik baliatzen ari ziren pertsonaei; hala ere, gehienez ere sei hilabeteko epean eskatu ahal izango dute hau aplikatzea. Behin aldaketa onartuta, ezin izango da berriro eskatu aurreko araudia aplikatzea. Zerbitzuan alta emateko – baita aurreko sistema aplikatzen zitzaizen pertsonaei zerbitzua iraungi ondoren ere –, araudi honetan aurreikusitako xedapenak bete beharko dira.

7. Formakuntza ikastaroak eta jardunaldia

18 urtez gorakoentzako Azpeitiko Udalak antolatzen dituen ikastaro eta jardunaldietan matrikulatzen direnak egongo dira behartuta ordaintzera.

Prezio publikoak aldez-aurretik ordain ditzatela eskatu ahal izango zaie ikasle izan nahi dutenei matrikulazioa egitean.



Azpeitiko Udala

Ez da prezio publikorik sortuko beste erakunde batzuekin batera finantzatzen diren ikastaro eta prestakuntza programengatik, finantziario hori jasotzen duen arauan hala jartzen badu.

Ez dute prezio publikorik sortuko lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei zuzendutako, laneratazako programen baitako formakuntza ikastaroek.

Formakuntzarako zerbitzu eta ikastaroengatik ordaindu beharreko prezio publikoak, ikastaro edo programen iraupena aintzat hartzen duten ondoko tarifen arabera matrikula izango da.

Kurtso kopurua urte naturalean zehar	Kurtsoko kopurua ordu	Azpeitian errolatutakoentzako prezioa	Azpeitian errolatu gabekoentzako prezioa
1-2	1-10	1,68 €	2,09 €
	+11	1,38 €. Gehienez 43,91 €	1,68 €. Gehienez 54,98 €
+ 3	1-10	1,53 €	1,79 €
	+11	1,22 €. Gehienez 41,77 €	1,48 € Gehienez 51,97 €

8. Gazteria saileko ekintzak

LUDOTEKA ZERBITZUA (€ / ikasturtea)	25,00
-------------------------------------	-------

Gabon – Aste Santuetako oporretako ekintzak

ADIN TARTEA	Goizetako ekintzak (€ / eguneko)	Eguneko irteera solteak € / irteerako
HH - LH	5,00	10,00
DBH eta BATX1	5,00	20,00

Uztailako udalekuetako ekintzak

ADIN TARTEA	1.eta 2. Hamabostaldiak (€ / hamabostaldiko)	Azken astea	5 asteak
HH2 eta HH3	55,00	30,00	125,00
HH4 eta HH5	65,00	35,00	145,00

ADIN TARTEA	Astea (€ / asteko)	5 asteak
LH 1-2-3-4	35,00	155,00
LH 5 – 6	40,00	160,00

Zaintza zerbitzua (€ / asteko)	20,00
--------------------------------	-------

ADIN TARTEA	Eguneko goiz ekintzak € / ekintzako	Eguneko irteera solteak € / irteerako	Lo egitera irteerak
DBH 1 – 2	4,00	25,00	50,00 (1)
DBH 3 – 4 eta BATX1	4,00	25,00	85,00 (2)

(1) 2 gau pasatzera irteera

(2) Udaleku ibiltariak, astelehenetik ostiralera

Familia ugariak, Gabon, Aste Santu eta Uztailako udalekuetako ekintzetan %30eko hobaria izango dute.



Azpeitiko Udala

9. Egokitutako lokalen alokairuak

Udalak egokitutako lokalen urteko alokairua: 300,00 euro (BEZ barne)

Zerbitzu publikoak eskaini eta iharduerak burutzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoen ordenantza arautzailea, Eranskin honetako tarifak beronen zati direnak, behin betiko onartu zen adierazitako 1989ko urriaren 2ko Udalbatza erabakian, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

Dagozkion aldaketak, Eranskina barne, behin betiko onartuak gelditu ziren, 1990eko urriaren 4ean, 1991ko irailaren 25ean, 1992ko urriaren 29an, 1993ko urriaren 7an, 1994ko urriaren 17an, 1995ko urriaren 5ean, 1996ko urriaren 24ean, 1997ko urriaren 14ean, 1998ko urriaren 22an, 1999ko urriaren 22an, 2000ko urriaren 25ean, 2001eko urriaren 11n, 2002ko urriaren 16an, 2003ko urriaren 2an, 2004ko urriaren 15ean, 2005eko urriaren 6an, 2006ko urriaren 5ean, 2007ko urriaren 4an, 2008ko urriaren 16an, 2009ko martxoaren 5ean, 2010eko ekainaren 3an, 2010eko azaroaren 4ean, 2011ko urriaren 21ean, 2012ko azaroaren 6ko, 2013ko urriaren 16ko, 2015eko martxoaren 31n, 2015eko urriaren 6an, 2016ko urriaren 4an eta 2019ko urriaren 15ean, 2021 urriaren 5eko, 2023ko urriaren 3ko, 2024ko ekainaren 4an, 2024ko urriaren 8an, 2025eko ekainaren 3an eta 2025eko urriaren 7ko Udalbatza erabakietan, inolako erreklamaziorik ez izatean.

ALKATEA,

IDAZKARIA,



9 Kontribuzio berezien ordenantza fiskal orokorra

I. Xedapen orokorrak

1. Artikulua

Udal honek, Toki Ogasunak arautzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauan aurrikusitakoaren arabera, obrak egin edo udal zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezien Ordenantza Orokorra onesten du.

2. Artikulua

Ordenantza udalerri osoan aplikatzen da.

II. Zergapeko egitatea

3. Artikulua

Kontribuzio berezien zergapeko egitatea da obra publikoak burutu edo Udalak udal zerbitzu publikoak ezarri nahiz hedatzearen ondorioz subjektu pasiboak onurarik edo bere ondasunen balioaren gehikuntza lortzea.

4. Artikulua

- Hurrengo hauek hartuko dira udal obra eta zerbitzutat:
 - a) Bere konpetentzien esparruan, egotzirik dituen xedeak betetzeko Udalak egiten dituenak, ondare-ondasunen jabe gisa egiten dituztenak salbu.
 - b) Bestelako Entitate Publikoek egotzi edo delegatu dizkiotelako Udalak egiten dituenak, eta legeriaren arabera horien titulartasuna bere gain hartu baditu.
 - c) Beste Erakunde Publiko batzuek edo hauen emakidadunek egindakoak, udalaren aportazioarekin.
- Aurreko zenbakiko a) hizkian sartutakoek ez dute udal obra edo zerbitzu kontsiderazioa galduko, nahiz eta kapital sozial osoa Udalarena duten Erakunde Autonomo edo Merkataritza Sozietateek, udal ekarpena duten emakidadunek edo zergadunen administrazio elkarteek burutuak izan.

5. Artikulua

Kontribuzio bereziengatik bildutako zenbatekoak, haiek exigitzeko arrazoi izan zen obra edo zerbitzuaren gastuak ordaintzeko bakarrik erabili ahal izango dira.

III. Subjektu pasiboa

6. Artikulua

1. Zerga ordaintzeko obligazioa sortzen duten obrak burutzetik edo udal zerbitzuak ezarri nahiz hedatzetik onura berezia ateratzen duten pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorraren 35. artikulua aipatzen dituen Erakundeak dira kontribuzio berezien subjektu pasiboak.
2. Hurrengo hauek onura berezia jasoko dute pertsonatzat joko dira:



2. Ondasun higieziinei dagozkien obrak egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, ondasun higiezinak jabeak.
 3. Enpresa ustiapenen ondorioz obrak egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, enpresetako titular diren pertsona edo erakundeak.
 4. Suteen itzaltze zerbitzuak hedatu edo hobetzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, erasandako ondasunen jabeek gain, udalerriaren barruan beren jarduerak alor horretan burutzen dituzten aseguru konpainiak.
 5. Lurrazpiko bideak egiteagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, ondoren erabiliko dituzten enpresa hornitzaileak.
3. Jabetza horizontaleko erregimeneko kasuetan, etxejabeen komunitateko ordezkariak, etxejabeen izena eta komunitatearekiko partaidetza-koefizientearen berri emango dio Udal Administrazioari kuota indibidualak igorri ahal izateko. Horrela egingo ez balitz kuota bakarra igortzea onartzen dela ulertuko da eta elkarteak bera arduratuko da ondorengo banaketaz.

IV. Zerga-oinarria

7. Artikulua

1. Kontribuzio berezietako zerga-oinarria, gehienez ere, obrak egin edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeagatik Udalak jasan behar duen kostuaren % 90 izango da. Ordenamendu erabakia hartzerakoan, ezar daitezkeen portzentajea finkatuko du, kasu bakoitzean.
2. Adierazitako kostua honako kontzeptu hauek osatuko dute:
 - a) Peritu lan, proiektuak idazteko lanen eta lan, plangintza eta programa teknikoaren zuzendaritza lanen benetako kostua.
 - b) Egin beharreko obrak edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeko lanen zenbatekoa.
 - c) Obra nahiz zerbitzuek etengabe hartu beharreko lurren balioa, erabilera publikoko ondasunak, Udalari doan eta obligazioz lagatako lurak edo legerian ezarritako baldintzetan lagatako ondasun higiezinak izan ezik.
 - d) Eraikuntzak eraitsi eta landaketa, obra edo instalazioak suntsitzeagatik ordaindu beharreko indemnizazioak, bai eta suntsitu nahiz okupatu beharreko ondasunen errentariei ordaindu beharrekoak ere.
 - e) Obra nahiz zerbitzuetan inbertituriko kapitalaren interesa, kontribuzio bereziek estaltzen ez duten parterako edo horiek zatituz gero estalitako parterako Udalak kreditua erabili beharko balu.
3. Obra nahiz zerbitzuetarako aurrekontuko kostuak aurrikuspen izaera hutsa izango du. Benetako kostua aurreikustakoa baino handiago edo txikiagoa balitz, hura hartuko litzateke dagozkion kuotak kalkulatzeko.



4. Aurreko 4.1.c) artikulua aipatzen dituen obra nahiz zerbitzuetarako direnean edo, artikuluko 2. zenbakiko emakidadunek egindakoak direnean, kontribuzio berezietako zerga oinarria, ekarpen horien arabera zehaztuko da, obra edo zerbitzu beraren zioz beste Administrazio Publikoek ezar ditzaketenen kalterik gabe. Nolanahi ere, atal honetako lehen zenbakiak aipatzen duen % 90eko muga errespetatuko da.
5. Zerga-oinarria ezartzeko, Udal Administrazioak jasandako kostutzat kostu osoari Udal Administrazioak jasoko dituen diru laguntza edo bestelako laguntzen zenbatekoa kendu ondoren lortzen den emaitza hartuko da.
6. Aipatutako diru laguntza edo bestelako laguntzak, kontribuzio bereziko subjektu pasiboren batek emandakoa bada, zenbatekoa pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehendabizi. Diru laguntza edo bestelako laguntzaren balioak kuota hori gaindituz gero, hortik gorakoa gainerako subjektu pasiboen kuotetatik kenduko da, hainbanatuz.

V. Kuota

8. Artikulua

Kontribuzio berezien zerga-oinarri sujetu pasiboen artean banatuko da, eta obra eta zerbitzuen mota eta izaera kontuan hartuko dira, hurrengo arauoi jarraiki:

- a) Orokorrean, batera zein banaka, banaketa modulu gisa honako hauek ezarriko dira, ondasun higiezinaren fatxadako metro linealak, beraien gainazala, beraien bolumen eraikigarria eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako katastroko balioa.
- b) Suhitzaltze zerbitzua ezarri eta hobetzeko kasuan, ezarpena egiten den Udalerrian kokaturiko ondasunen arriskuari erantzuten dioten Erakunde edo Sozietateen artean banatu ahal izango dira, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan. Sujeto pasibo bakoitzari eska dakiokeena berak bildutako primen zenbatekoaren % 5 baino kopuru handiagoa izango balitz, soberakina hurrengo ekitaldietara eramango litzateke amortizazio osoa egin arte.
- c) Ordenantza honetako 6. artikuluko 2.d) atalak aipatzen dituen obren kasuan, kontribuzio bereziaren zenbateko osoa, erabiliko duten Konpainia edo Enpresen artean banatuko da, bakoitzari, erreserbatutako tartearen arabera edo eta beraien zati osoaren proportzioan, berehalaxe erabiltzen ez badituzte ere.

9. Artikulua

Araudi ezargarriak edo Nazioarteko Hitzarmenek onura fiskalak ematen badituzte, onuradunei dagozkien kuotak ez dira gainerako zergadunen artean banatuko.

10. Artikulua

Ordaindu beharreko kuota zehaztu ondoren, Udalbatzak, subjektu pasiboak hala eskatuta, hura zatitu edo atzeratu ahal izango du, gehienez bost urterako.

VI. Tributuaren sortzapena



11. Artikulua

1.- Kontribuzio bereziak, obrak burutzean edo zerbitzuak ematen hasten diren unean sortzen dira. Obrak zatigarriak izango balira, sortzapena subjektu pasibo bakoitzarentzat, obraren tarteune edo zati bakoitzari dagozkionak egin ondoren sortuko litzateke.

2.- Aurreko atalean xedatutakoaren kalterik gabe, ezarpen eta antolamendu erabakia onetsi ondoren, Udalak aurretik eskatu ahal izango du kontribuzio berezien ordainketa, hurrengo urterako aurrikusitako kostuaren zenbatekoaren arabera. Ezin izango da urteko berriaren aurrerakinik eskatu, aurrerakinari dagozkion obrak egin ez badira.

3.- 6. artikuluan xedatuaren arabera ordaintzera behartutako pertsona zehazteko orduan Kontribuzio berezien sortze-unea hartuko da kontuan, nahiz eta antolamendu-erabaki konkretuan subjektu pasibo gisa, onespén datari zegokionean zena agertu eta kuoten ordainketa honako artikuluaaren bigarren atalean xedatutakoaren arabera, hark eginga izan bazen ere. Antolamendu erabaki konkretua subjektu pasibo gisa agertu eta horren berri jaso izan duen pertsonak, harako erabaki eta sortzapenaren sorreraren artean aurkitzen den epealdian, ezarpenaren zio ematen duten ondasun eta ustiapenei buruzko eskubideak izapidatzen dituenean, eginiko eskualdaketa berri, egin ondoko hilabeteko epearen barruan Administrazioari ematera behartuta dago eta, egingo ez balu, harako Administrazioak kobrantzarako egintza espediente hartan subjektu pasibo gisa agertzen denaren aurka zuzendu ahal izango luke.

4.-Obrak osorik edo partzialki burutu ondoren edo eta zerbitzuaren prestazioari hasiera emandakoan, subjektu pasiboak, oinarria eta behin betiko banakako kuota zein diren zehaztuko da, dagozkien likidazioak igorri eta egin diren ordainketa aurreratuak konturako emate gisa konpentsatuz. Behin betiko zehaztapen hori Udal Administrazioak egingo du, eta dagokien obra edo zerbitzurako tributua antolamendu-erabaki konkretuaren arauari lotuko zaie.

5.- Aurreraturako ordainketak tributua sortze datan subjektu pasiboaren izaera ez duten pertsonak egindakoak balira, edo eta dagokien behin betiko banakako kuota gainditzen dutenak izango balira, Udal Administrazioak ofizioz egingo luke dagokion itzulketa.

VII. Ezarpena eta antolamendua

12. Artikulua

1. Kontribuzio berezien ordainarazpenak, kasu konkretu bakoitzean aldeztu aurretik ezartze erabakia hartu beharra izango du.

2. Kontribuzio berezien bidez ordaindu beharko den obra bat egin edo zerbitzua ezarri edo handitzeari buruzko akordioa ezingo da exekutatu, hauen antolamendu zehatza onetsi arte.

3. Antolamendu erabakia nahitaez hartu beharrekoa izango da eta, obra eta zerbitzuetarako aurrikusitako kostuaren zehaztapena, onuradunen artean banatzeko zenbatekoarena eta banaketa irizpideak zehaztuko ditu. Ordenamendu erabaki zehatza Ordenantza honen arabera izango da.

4. Behin Kontribuzio berezietako ordenamendu erabakia hartu eta ordaindu beharreko kuotak zehaztuta, banan-banan jakinaraziko zaizkie subjektu pasibo beraiek edo beren



helbideak ezagunak badira eta, hala izan ezean, ediktu bidez. Interesatuak berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dute Udalaren aurrean, edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa Lurralde Historikoko Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean. Errekurtso horiek kontribuzio berezien egokitasunaz, onura berezia ateratzen duten pertsonak ordaindu beharreko kostuaren portzentajeaz edo esleituriko kuotez izan daitezke.

13. Artikulua

1. Udal eskumeneko obra eta zerbitzuak Udalak burutu edo eskaintzen baditu bestelako Toki Erakunderen baten laguntza ekonomikoarekin eta, Foru Araudian ezarritakoaren arabera kontribuzio bereziak ezartzen baldin badira, horien kudeaketa eta bilketa lanak burutzeko edo zerbitzuak ezarri nahiz hedatzeko ardura hartzen duen Erakundeak egingo ditu, ezarpen eta ordenamendu erabakiei dagokienez erakunde bakoitzak bere konpetentzia gordetzearen kalterik gabe.

2. Horietako erakunderen batek ordenamendu erabaki zehatza onartzen ez badu, eraginik gabe geratuko da ekintza bateratua, eta bakoitzak bere aldetik hartuko ditue beharrezko erabakiak.

VIII. Herritarren kolaborazioa

14. Artikulua

1.- Obrek eragina jasotako jabe edo titularrek zergadunen administrazio Elkartea osatu ahal izango dute, eta obrak burutzea edo udal zerbitzuak ezarri nahiz hedatzea bultzatu ahal izango dute, eta obra edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagokiena ordaintzeaz gain, Udalari dagokion partea ere ordaintzeko konpromezua hartuko dute, finantza egoera dela eta, Udalak bere gain hartu ezin badu.

2.- Halaber, obrak burutu izanaren edo Udalak zerbitzu publikoak ezarri nahiz eratu izanaren eragina jaso duten jabe edo titularrek zergadunen administrazio Elkarteak osatu ahal izango dituzte kontribuzio berezien ordenamendu akordioaren jendaurreko epealdian.

15. Artikulua

Aurreko artikulua aipatzen dituen zergadunen administrazio Elkarteak osatzeko, obren eragina jasotako gehiengo osoak hartu behar du erabakia, beti ere, gutxienez ordaindu beharreko kuoten bi herenak baldin badira.

16. Artikulua

1.- Zergadunen Elkarteen funtzionamendua, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua garatuko duten erregelamenduzko arauak ezartzen dutenaren arabera izango da.

2.- Nolanahi ere, zergadunen administrazio Elkarteak harturiko erabakiak, kideen gehiengoarekin eta ordaindu beharreko kuoten bi herenak ordezkatzuz, derrigorrezkoak izango dira gainerakoentzat. Elkarte horrek, beharrezko quorumarekin, Batzorde edo Batzar Exekutiboa izendatuko du eta honek harturiko erabakiek indarra izango dute interesatuak behartzeko.



Azpeitiko Udala

3.- Zergadunen administrazio Elkarteek, 14. Artikuluaren 1. eta 2. zenbakietan ezarritakoaren arabera osatu ondoren, obra eta zerbitzuen zuzeneko exekuzioa eskatu ahal izango diote Udalari.

Horretarako, hurrengo baldintza hauek hartuko dira kontuan:

- a) Exekuzioa Udal Administrazioak egindako proiektuaren baldintza eta epeak beteaz egin beharko da, edo gutxienez, Elkarteak aurkeztu eta Udalak onetsitako proiektuaren arabera.
- b) Aipatutako exekuzioa, nolanahi ere, Udalak izendaturiko teknikarien zuzendaritzapean egingo da.
- c) Elkarteak bere gain hartuko du interes publiko nahiz pribatuei sortu ahal zaizkien kalteen ardura, bai eta exekuzioaren atzerapenarena eta behin-betiko jaso ondorengo bost urteetan ager litezkeen ezkutuko bizioena ere.
- d) Udalak ahalmena du zergadunen administrazio Elkarteek aipatutako obra eta zerbitzuen exekuziorako egingo dituzten proposamenak onartu ala baztertzeko.
- e) Obra eta zerbitzuetarako udal ekarpena, horrelakorik baldin badago, behin-betirako burutu eta berehala egingo da.

IX. Amaierako xedapena

Honako Ordenantza, behin betiko onartu zen Eranskinean adieraziten den datan, indarrean sartuko da 1990eko urtarrilaren 1ean eta hala jarraituko du beronen aldaketa edo indargabetzea onartzen ez den bitartean..

Kontribuzio Berezieta Ordenantza Fiskal Orokorra (Eranskin hau beronen zati da) behin betiko onartu zen adierazitako 1989ko urriaren 2ko Udalbatzan, inolako erreklamaziorik izan ez zelako.

ALKATEA,

IDAZKARIA,